

**EAE-KO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN HIZKUNTZA
NORMALIZATZEKO PLAN OROKORRA
2011-2020**

Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritza

JUSTIZIA SAILBURUORDETZA



0. SARRERA.

Jakina da euskara gutxi erabiltzen dela Justizia Administrazioan. Hizkuntza-normalizazioan indarrean dagoen legeria betetzeko neurriak hartu arren, guztiok onartzen dugu euskarak ez duela egoera normalizatua Justizia Administrazioan. Gainera, berrets daiteke gaur egun ez dagoela bermatuta herritarrak berak aukeratutako hizkuntzan zerbitzua jasotzeko duen eskubidea.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu egin behar da euskararen erabilera sustatzeko Justizia Administrazioak burututako lana. Beste hainbat ekintzen artean, azpimarratu egin behar da 117/2001 Dekretuaren aldarrikapena; Dekretu horretan EAEko Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalizaziora zuzendutako neurrien multzo homogeen bat definitzen da. Testuinguru honetan kokatu behar dira, esate baterako, ondorengo jardunak: esperientzia pilotuak, ereduak itzultzea, edo euskalduntze-prozesuen sakontzea eta zabaltzea.

Gaur egun, abenduaren 23ko 19/2003 LOren Botere Judizialaren Lege Organikoaren Erreforma kontuan hartuz, dekretu-proposamen berri bat egin da, Justizia Administrazioa hizkuntzaren normalizazioa arautzeko, plan honekin batera onartuko dena.

Aipatu behar da, beraz, inguruabarren arabera emaitzak lortu arren, ez dela erabat baztergarria orain arte egindako ahalegina; izan ere, bereziki azpimarragarriak dira Justizia Administrazioa hizkuntzaren normalizaziora erabiltzeko prozesuei begira hartutako konpromisoa, eta erabiltzeko esperientzietan izandako parte-hartzea.

Administrazio Publikoko beste eremuak kontuan hartuz, azpimarratu behar da EAEko Administrazio Publikoetan euskara erabiltzeko normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretua argitaratu zela 1997ko apirilean. Era berean, EAEko Administrazioan 1998-2002 denboraldirako Euskara Normalizatzeko Plana 1998ko azaroan argitaratu zen. Hala ere, aipatutako bi testu horien aplikazio-eremutik kanpo geratu zen Justizia Administrazioa. Hortaz, begien bistakoa da Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra zehazteko beharra.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak Plan Orokor bat egiteko ardura hartu du, Justizia Administrazioan jarduteko jarraibide orokorrak zehazteko dituen. Plan Orokor horretan zehaztutako alderdiak sakontasunez garatzeko egin behar diren erabilera-plan zehatzak definitzeko orduan, erreferentzia izango da Plan Orokor hori. Agiri honetan, beraz, Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra jasotzen da.

Esan beharra dago Plan honek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren Bulego Judizialen eta Fiskalen Antolaketa Planak eta Justizia Administrazioaren laugarren Informatika eta Komunikazioen Planak, biltzen dituzten jarduera multzoarekin batera, Euskal Herriko Justizia Administrazioaren Modernizaziorako eta Euskalduntzerako posizionamendu integrala osatzen dutela.

Nahiz eta kontuan hartu hiru planen iraupena ez datorrela bat, ahal den neurrian aldi berean jardutea garrantzitsua da, batez ere Antolaketa-planarekin lotuta jardutea.

Jarraian azaltzen den agiria bi zatitan banatu da. Lehenengoan, gaur egun epaitegietako jarduera garatzen den testuinguruari egiten zaio erreferentzia, bai gizartearen ikuspuntutik, baita hizkuntzaren ikuspuntutik ere. Atal horretan, Justizia Administrazioan euskararen erabilerarekin zerikusia duten legeak zehaztu dira. Bistakoa da agiri honen helburua ez dela aipatu berri diren legeei buruzko azterketa propioa egitea. Erreferentziazko informazioa eskaini nahi da, bigarren zatian egingo den balorazioa, hau da, jardun- proposamena, ahal den neurrian azaltzeko.

Aipatu den moduan, jardun-plana dei dakioketena jasotzen da agiri honetako bigarren zatian. Plana garatzeko diseinatu den prozedura oinarritzen da, batetik, Justizia Administrazioko agenteekin egindako lan-bileretan eta elkarrizketa pertsonaletan, eta bestetik, kapitulu[^] honetan xehetasunez zehazten diren helburuetan, lerroetan eta jardunetan. Sarrera gisa, egoeraren diagnostiko bat egin da.

1. EAE-KO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA. ESPARRU OROKORRA


1.1 BIZTANLERIA ETA EUSKARA

1.1.1 Biztanleria


EUSTATEk 2006an argitaratutako Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera - eskuragarri dugun azkeneko zenbaketa- 2.129.339 biztanle ditu Euskal Autonomia Erkidegoak. Biztanleriaren erdia Bizkaian bizi da.

Biztanleriak %2 baino gehixeago gora egin du. Eraitza demografiko positiboa da, bai EAE osoan baita lurralde bakoitzean ere. Araba da aipagarriena, 2001 eta 2006 bitartean, bertako biztanleria ia %7 areagotu baita.

1. Grafikoa: Biztanleriaren banaketa lurraldeen arabera. 2006




2. Grafikoa: Biztanleriaren eboluzioa. 1981-2006




Joera-aldaketa horrekin batera, biztanleriaren zahartze-prozesua gelditu egin da, eta biztanleria gazteena areagotu egin da, 2001. urtean ikusten hasi zen joera berretsiz.

3. Grafikoa



4. Grafikoa



Atzerriko populazioaren garrantzi erlatiboa ez da oso handia, ez baita biztanleria osoaren %5 ere osatzen. Bere bilakaerari dagokionez, aipagarria da, 2001 etik aurrera, biztanleria horren hazkuntza-eritmoa handitu egin dela, eta gaur egun arte eritmo hori gutxi gorabehera aldaketarik gabe mantendu

dela. Kontuan izan behar da, gainera, sarrera kopuru handi bat ez dela erregistratzen, hortaz, garrantzi handiko zifrak direla aipatu behar da.

Atzerriko populazioaren bilakaeraren ezaugarriak oso garrantzitsuak dira hizkuntzaren ikuspegitik. Izan ere, latinoamerikar ia guztiak (2007. urtean 47.000) erdaldunak dira, hots, gazte-iania-hiztunak, eta horrek gaztelaniaren egoera indartu egiten du.

1.1.2 Euskara

Euskararen ezagutza mailari dagokionez, azpimarratu behar da azken urteotako joera baikorra dela eta EAEn gero eta jende gehiagok ezagutzen duela euskara. Horiek horrela, 2006ko zentsuaren arabera, EAEn euskaldunen eta ia euskaldunen ehunekoak erdaldun elebakarren ehunekoa gainditzen du. Ondorengo taulan ikus daitekeenez, Gipuzkoa da euskaldun gehien duen lurraldea.

1. Taula: Euskararen ezagutza maila, lurraldeen arabera. 2006ko datuak. Aipatu behar da Eustateko datuetan kontutan hartzen direnak 2 urtetik gorako biztanleak direla.

	<u>EAE</u>	<u>ARABA</u>	<u>GIPUZKOA</u>	<u>BIZKAIA</u>
Guztira	2.072.541	297.569	667.763	1.108.209
Euskaldunak	% 37,40	% 25,10	% 52,90	% 31,30
Alfabetatuak	% 82,90	% 87,40	% 83,10	% 81,80
Partzialki alfabetatuak	% 14,70	% 10,90	% 14,80	% 15,40
Alfabetatu gabeak	% 2,40	% 1,70	% 2,10	% 2,80
Ia euskaldunak	% 22,14	% 22,54	% 20,45	% 23,03
Alfabetatuak	% 62,60	% 67,20	% 55,70	% 73,80
Alfabetatu gabeak	% 17,90	% 14,30	% 23,30	% 18,10
Pasiboak	% 19,50	% 18,50	% 21,00	% 21,40
Erdaldunak	% 40,46	% 52,38	% 26,52	% 45,62

Iturria: Eustat


Joerari dagokionez, aipatu behar da EAEko lurralde guztietan joera antzekoa izan dela azken urteotan. Lurralde guztietan, euskaldunen eta ia euskaldunen ehunekoak gora egin du nabarmen, eta erdaldun elebakarren ehunekoak, berriz, behera.

2. Taula: Euskararen ezagutza-mailaren eboluzioa. 1986-2006.

	EAE				
	1986	1991	1996	2001	2006
Guztira	2.098.995	2.068.927	2.062.525	2.033.247	2.072.541
Euskaldunak	% 24,48	% 26,28	% 30,88	% 32,31	% 37,38
Alfabetatuak	% 62,10	% 67,90	% 76,00	% 80,30	% 82,91
Partzialki alfabetatuak	% 27,00	% 23,40	% 17,90	% 16,20	% 14,70
Alfabetatu gabeak	% 10,90	% 8,80	% 6,10	% 3,50	% 2,38
la euskaldunak	% 17,35	% 19,84	% 19,72	% 23,12	% 22,14
Alfabetatuak	% 61,00	% 64,30	% 65,40	% 64,30	% 62,62
Alfabetatu gabeak	% 21,00	% 17,60	% 16,20	% 15,30	% 17,87
Pasiboak	% 18,00	% 18,10	% 18,40	% 20,40	% 19,50
Erdaldunak	% 58,17	% 53,88	% 49,40	% 44,57	% 40,46
IOC	% 33,16	% 36,20	% 40,74	% 43,87	% 48,46%

Iturria: Eustat

5. grafikoa: Euskararen ezagutza-mailaren eboluzioa. 1986-2006



Urteko hazkunde-tasa horiek mantenduko direnaren hipotesia kontuan hartuta eta lehen azaldutako biztanleriaren proiektioei tasa horiek aplikatuta, aurrerantzean euskaldunen zifren eta erdaldun elebkarren zifren arteko aldea gero eta handiagoa izango dela aurrez ikus daiteke. Erdaldunen talde hori, gaur egun, gutxiengoa da, biztanleria ia euskalduna kontuan hartzen bada.

Hori guztia kontuan hartuta, beharrezkoa da Administrazio arlo desberdinetan hizkuntza-normalizazioko plan zehatzak egitea, eta, noski, baita Justizia Administrazioan ere. Etorkizun hurbil

batean, gero eta sarriago, euskaraz egingo diren zerbitzu-eskaerei erantzuteko beharraren ondorioa da hori.

3. Taula: Kapituluako alderdi aipagarrien laburpena

BIZTANLERIA	Azken urteetako joera biztanle kopuruak apurka-apurka behera egitearena bazen ere, azken bost urte hauetan biztanleriak, gutxi bada ere, gora egin du EAEn
PROIEKZIOAK	Proiektzioek biztanle kopurua gora doala erakusten dute; 2015 urterako EAEk 2.225.000 biztanle izatea aurreikusten da.
	EAEko biztanleria gero eta zaharragoa da. Bizitza-esperantza oso handia da eta, aldi berean, jaiotze-tasak behera egin du nabarmen. 1991 eta 2006 bitartean 65 urtetik gorako biztanleriak ia %50 egin du gora.
	Biztanleriaren jatorriari dagokionez, azken 15 urteotan etorritako immigranteen hazkundera oso handia izan da. EAEko biztanleen %2 izatetik %5 izatera iritsi da.
EUSKARA	Euskaldunak eta ia euskaldunak erdaldunak baino zertxobait gehiago dira.
	Joera hori mantenduko dela aurrez ikusten da, erdaldun elebakarren ehunekoak behera egingo duela aurrez ikusten baita.
	Euskaldunen kopuru absolutuak gora egingo duela adierazten dute proiektzioek

1.2 EUSKARARI BURUZKO LEGERIA: JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOKO ERABILERA

Atal honetan azaltzen dira, batetik, Justizia Administrazioan euskararen normalizazioan eragiten duen eta indarrean dagoen legeria, eta, bestetik, jurisdikzio-adierazpen nabarmenenak. Arlo judizialean euskara erabiltzeko ezarritako esparru orokorra deskribatzea da helburua. Esparru orokor hori, oinarrian, 1978ko Konstituzioak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak eta Botere Judizialaren Lege Organikoak definitzen dute. Aipatu behar da abenduaren 23ko 19/2003 LOren Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreformak Justizia Administrazioan euskara normalizatzearekin zuzenean zerikusia duten alderdiak jasotzen dituela. Kapitulu hau idazteko, kontuan hartu da Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak 2000. urteko irailean Cesar Gallastegik egindako "Justizia Administrazioan euskara normalizatzea" izeneko ikerketa.

1.2.1 Konstituzioa

Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-eskubideak bermatzeko oinarriak ezartzen dira 1978ko Konstituzioan; horregatik da legegintza-erreferentzia garrantzitsuenetakoa. Espainiako Konstituzioa onartzeak nabarmen aldatu zuen Estatu Espainiarrean hizkuntzen tratamendu juridikoa aurreko egoerarekin alderatuta.

Konstituzioak honela dio 3. artikuluan:

1. Gaztelania da Espainiako estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek dute gaztelania jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia- erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik.
3. Espainiako hizkuntza moten aberastasuna kultura-ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du.

Beraz, artikuluko horri jarraiki, Estatuaren hizkuntza ofiziala gaztelania izango da, eta gainerako hizkuntzak koofizialak izango dira autonomia-erkidegoetako estatutuetan hala jasotzen denean; azken kasu hori gertatzen da EAEn.

Ofizialtasunari dagokionez, Auzitegi Konstituzionalak honako hau adierazi zuen ekainaren 26ko 82/1986 epaian:

"Konstituzioan ez da definitzen zer den hizkuntza ofiziala, jakindakotzat jotzen da. Hala ere, gai horri buruzko araudiak baieztatzen du hizkuntza bat ofiziala dela, gizartean duen errealitatea eta indarra edozein dela ere, botere publikoek aitortzen diotenean baliozkotasun osoz eta ondore juridikoekin beraien artean eta subjektu pribatuekin komunikatzeko bide arrunta dela".

Koofizialtasunari dagokionez, epai berak ondore garrantzitsu bat aipatzen du: "gertakaria izan den lekuko Autonomia Erkidegoan dauden botere publiko guztiengana iristen da". Beraz, koofizialtasuna lurralde

autonomikoan kokatuta dauden botere publiko guztiekiko ulertu behar da, zentzu hertsian. Horiek horrela, gaztelaniaren ofizialtasunaren eta gainerako hizkuntzen koofizialtasunaren muga-irizpidea lurraldea da, botere publikoak izaera estatala, autonomikoa edo lokala duen kontuan hartu gabe.

Era berean, Konstituzioko 3. artikuluari jarraiki, aipatu behar da bere 1. paragrafoan gaztelania jakiteko banakako eginbeharra ezartzen dela. Hau da, gaztelania Estatutuko hizkuntza ofiziala dela ezartzen da Konstituzioan, eta espainiar guztiek dutela jakiteko eginbeharra. Hala ere, ez da ezartzen jakiteko eginbehar bera euskarari dagokionez.

Zentzu honetan, Auzitegi Konstituzionalak orain dela gutxi emandako jurisprudentzia aipatu behar da, zehazki, apirilaren 13ko 105/2000 epaia. Epaia horretan, organo judizialek hizkuntza ofizialak erabiltzeari dagokionez aipatzen da, organo judizialek ez dutela gaztelania ez den beste hizkuntzarik jakiteko beharrik, justizia bakarra delako Espainiako lurralde guztian; beraz, epaileek ezagutzen ez duten hizkuntza batean idatzitako idazkiak edo agiriak itzultzeko eska dezaketela, beren jurisdikzio-funtzioa betetzeko beharrezkoa denean, eta, arrazoi horregatik, Autonomia Erkidegoan hizkuntza koofiziala jakitea merezimendua dela karrera judizialean sartzeko hautagaien artean, baina ez dela, hala ere, beharrezko baldintza, lurralde nazional guztian justizia bakarra delako eta karrera judizialeko kideek lanpostuz eta autonomia-erkidegoz alda dezaketelako.

Hala ere, gerora, eta koofizialtasunari eta euskararen ezagutzari buruz, honako hau adierazi zuen Konstituzio Auzitegiak 2005eko urriaren 11ko 253/2005 epaiaren (Estatuko Gobernuak martxoaren 31ko Eusko Jaurlaritzaren 63/98 dekretuaren aurka sustatutako 3783/98 zenbakiko eskumen-gatazka positiboari buruzkoan emandakoaren) 10. atalean:

"BJLOren manu honi dagokionez, aipatu genuen "gaztelania dela izaera orokorreko hizkuntza ofiziala eta espainiar guztiek dutela jakiteko eginbeharra eta erabiltzeko eskubidea (Konstituzioaren 3.1 art.), eta horregatik dela Justizia Administrazioan normalean erabiltzen den hizkuntza, BJLOren 231.1 artikuluan ezarritakoarekin bat. Baina, orokortasun horrekin batera, badira koofizialtasun linguistikoaren estatutua duten Autonomia Erkidego batzuk, eta estatutu horren arabera ezartzen da, besteak beste, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea Administrazio Publikoen barnean eta haiekiko harremanetan, eta hori hala onartua agertzen da Justizia Administrazioarentzat BJLOren 231. artikuluen 2 eta 3 ataletan" (56/1990 KAE, 41. ZO)".

"Eztabaidatutako gaien zentratuz, legegile organikoak berak, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioek euskara ezagutzea eskatu ez arren, aitortu du hizkuntza hori ofiziala ere badela Euskal Herrian eta, 149.1 artikuluen 5. eta 6. ataletan ezarritako Estatuaren eskumena egikaritzeko, euskararen ezagutza kontuan hartu behar dela lanpostuen arteko erlazioak osatzean eta lekualdaketako lehiaketetan. Gai horri buruz, BJLOren bi irizpide nabarmendu behar dira".

"Beraz, manu horien arabera lanpostuen zerrendetako bakoitzaren ponderazioa eska daitekeenez, eta horien artean, euskararen ezagutza eska dezaketen lanpostuen ezaugarri zehatzak,

proportzionaltasun-printzipioa gorde egiten da, eta ez dago, hortaz, kontraesanean Konstituzioak ezarritako eskumen-banaketa hori Eusko Jaurlaritzak martxoaren 31ko 63/1998 Dekretu bidez onartutako Akordioan aurrez ikusten denarekin, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion lanpostuen zerrendetarako "zenbait lanpostutan euskararen ezagutza betekizuna izatearekin; izan ere, aurreikuspen hori bat dator Botere Judizialaren Lege Organikoan araututakoarekin. Horrenbestez, irizpide honek ez ditu hausten Estatuaren eskumenak".

Zenbait lanpostutan euskararen ezagutza "funtsezko baldintza" izateaz egiten duen analisisian, Konstituzio Auzitegiak Justizia Administrazioan euskararen erabilerrari buruzko erregimen orokorraren inguruan zuen doktrina berretsi du, baita eskumen konkurrentearen kontzeptuaren ingurukoa ere. Eta, horretarako, BELOKO 231. artikulua aipatzen da (19/2003 LOka aldatu gabekoa), eta lanpostuen zerrendak eta pertsonal-lekualdaketako lehiaketak egitean hizkuntzaren ezagutzak duen garrantzia, betiere gogoan hartuz hizkuntza-ezagutzaren eskakizunaren proportzionaltasun- printzipioa eta zenbait lanpostutarako euskararen ezagutzaren eskakizunaren legezkotasuna onartuz, BJLOan araututakoarekin bat; ulertzen da aztertutako Dekretuak ez dituela Estatuaren eskumenak hausten.

KAk jarrera hori 2006ko irailaren 13ko 270/2006 epaian berresten du, Estatuako Gobernuak ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuaren aurka formulatutako eskumen-gatazka positiboaren harira emandako epaian -Dekretu hark Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalizaziorako neurriak zehazten zituen.

Geroago, uztailaren 29ko 152/2008 Dekretua idatzi zen, baina honen aurka Estatuako Gobernuak indargabetze-errekerimendua aurkeztu zuen. Horrez gain, berriki egin diren lege-aldaketak eta bulego judizialaren antolakuntza eta funtzionamendu-egitura berria abiarazten ari direla eta, ezinbestez formulatu behar izan da 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa.

1.2.2 Euskal Herriko Autonomia Estatutua

Konstituzioan ezarritakoa garatuz, Euskal Autonomia Erkidegoak gaztelaniaren eta euskararen koofizialtasuna ezarri zuen. Autonomia Estatutuko (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoko) 6. artikuluari jarraiki:

1. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.
3. Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.

Eusko Legebiltzarreko 10/1982 Legean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko oinarrizkoan, garatzen dira Autonomia Estatutuan egindako aurreikuspenak. Lege horren helburua ez da, hala ere, hizkuntzaren

ofizialtasun bikoitza arautzea soilik. Legearen izenburuak adierazten duen moduan, euskararen erabileraren normalizazioa lortu nahi da, eta, horregatik, Legeko artikuluetan askotan azaltzen da botere publikoek euskararen erabilera sustatzeko irizpidea.

Koofizialtasuna Justizia Administrazioan aplikatzeko idatzi zen 9. art.:

1. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beraiek aukeratutako hizkuntza ofiziala erabil dezakete, eta ez zaie itzulpenik eskatuko.
2. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, baita jardun judizialak ere, erabat baliozkoak eta eraginkorrak izango dira.
3. Eusko Jaurlaritzak, egoki diren organoen bidez, EAeko Justizia Administrazioiko euskararen erabileraren normalizazioa sustatuko du.

1.2.3 Botere Judizialaren Lege Organikoa

1985eko uztailaren 1eko Botere Judizialaren Lege Organikoa (BJLO) onartu zuen Espainiako Parlamentuak. Konstituzioko 122. artikuluan honako hau zehazten da:

1. Botere Judizialaren Lege Organikoak finkatuko ditu epaitegi eta auzitegien eraketa, jardunbidea eta gobernu, karreradun epaileen eta magistratuen estatutu juridikoa, horiek kidego bakar bat eginik, eta Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen estatutua.
2. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia beraren gobernurako organoa da. Lege Organikoak ezarriko ditu haren estatutua, eta kideen bateraezintasun-araubidea eta eginkizunak, batez ere, izendatze, igotze, ikuskatze eta diziiplina-araubideari dagokionez.

BJLOk, modu berean, jardun judizialeko hizkuntzaren ofizialtasuna zehazten du bere artikuluan. Lege Organikoak honako hau ezartzen du bere 231. artikuluan, 19/2003 LOK aldatu gabeko artikuluan, alegia:

1. Jardun judizial guztietan epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dute, Estatuko hizkuntza ofiziala.
2. Epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek Autonomia Erkidegoko hizkuntza propioa erabil dezakete, alderdietako inork, hizkuntza hori ez dakiela alegatuz, aurka egiten ez badu, egoera horrek defentsa-gabezia sorbaitezake.
3. Alderdiek, beren ordezkariak eta zuzentzen dituztenek, baita lekukoak eta adituek ere, jardun judizialak gauzatu behar dituzten lurraldeko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala erabil dezakete, bai ahozko adierazpenetan baita idatzizkoetan ere.
4. Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialean gauzatutako jardun judizialek eta aurkeztutako agiriak erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna izango dute, gaztelaniara itzuli beharrik gabe.

Jardun judizial eta agiri horiek ofizioz itzuliko dira Autonomia Erkidegotik kanpo dauden organo judizialean ondoreak sortu behar dituztenean, salbu eta hizkuntza ofizial bera duten Autonomia Erkidegoak badira. Era berean, itzuli egingo dira legeetan horrela ezartzen denean edo defentsa-gabezia alegatzen duen alderdiak hala eskatzen duenean.

5. Ahozko jardunetan, interprete-lanak egiteko gaitzat jo dezake epaileak edo auzitegiak erabiliko den hizkuntza ezagutzen duen edonor, pertsona horrek alde aurretik zin egin edo hitzeman ondoren.

BJLOko 341. artikuluari jarraiki, hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetako organo judizialean, karrera judizialeko kideei erreserbatutako lanpostuak betetzeko merezimendutzat joko da hizkuntza ofizial propioa jakitea.

1. Zuzenbide Zibil berezia edo forala eta hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetako auzitegi nagusietako eta probintzia-auzitegietakako lehendakariaren lanpostuak betetzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak merezimendutzat hartuko ditu Zuzenbide Zibil Berezia edo Forala ezagutzea eta Autonomia Erkidego horretako hizkuntza jakitea.
2. Aipatutako autonomia-erkidegoetako zuzenbide zibil berezi edo foralaren eta hizkuntzaren ezagutza balioesteko irizpideak erregelamendu bidez ezarriko dira, eta ezagutza hori lehentasunezko merezimendutzat hartuko da erkidego horietako lurraldeetako organo jurisdikzionaletan jarduteko lehiaketetan.

Epaileei, kudeaketa prozesal eta administratiboko kidegoei, izapide prozesal eta administratiboko kidegoei, laguntza judizialeko kidegoei eta auzitegiko medikuei dagokienez, beren erregelamenduan garatu dira BJLOko aurreikuspenak, eta hizkuntza propioa ezagutzea merezimendutzat baloratu da hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetako lanpostuak betetzeko.

Horrez gain, BJLOko 455. artikuluan, 16/1994 Legeak aldatutakoan, Justizia Administrazioaren zerbitzuplean dauden langileen gainean Autonomia Erkidegoek dituzten eskumenak zehazten ziren. Indarrean dagoen BJLOko 471.2 artikulua baimena ematen die gai horretan eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoei Legeak garatzeko behar diren erregelamenduak onartzeko. Modu horretara, 60/1996 Dekretuaren bidez, Transferentzien Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zen, eta Justizia Administrazioaren zerbitzura transferitu ziren langileak. Justizia Administrazioaren zerbitzupeko ofizialen, laguntzaileen eta agente judizialen eta auzitegietakako medikuen Erregelamendu Organikoak ere onartu ziren.

249/1996 Errege Dekretuko 50. artikuluari jarraiki, Justizia Administrazioaren funtzionamendurako giza baliabideen eskumena bereganatuta duten Autonomia Erkidegoek, esaterako, EAEk, beren lurraldean kokatutako organoetako lanpostuak zehaztuko dituzte, eta, hala denean, kargua betetzeko oinarritzko baldintzak. Aipatutako araudiarekin bat eman zen ekainaren 29ko 174/2010 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa.

Justizia Administrazioiko hizkuntzaren normalizazioan gehien eragiten duten BJLOko artikulua aztertu ondoren, garrantzitsua da hainbat aipamen egitea:

- BJLOko 231. artikuluari jarraiki, jardun judizialak itzuli egingo dira alderdietako batek defentsa-gabezia alegatzen badu, hizkuntza ezagutzen ez duelako. Zaila da, benetan, prozesu judizial bateko partaide guztiak euskaldunak izatea.
- Epailleak eta fiskalak oinarrikoak dira prozesu judizial baten garapenean. Aurreko puntuarekin lotuz, epaileen eta fiskalen euskararen ezagutza mailak eragin zuzena du Justizia Administrazioaren euskalduntzean.
- BJLOko 341. artikuluekin bat, euskara merezimendu profesionaltzat jotzen da. Derrigortasunik ezak arazo batzuk sortzen ditu. Merezimenduaren aplikazioa, kasu gehienetan, karrera judizialeko maila gorenetera iristeko erabiltzen da, normalki, EAeko probintzia-auzitegiak edo Auzitegi Nagusiko lanpostuetara iristeko.
- Karrera Judizialeko 1/1995 Erregelamenduko 109.2 artikuluari jarraiki, BJKNko osoko bilkurak 1998ko otsailaren 25ean erabakitako idazkera kontuan hartuta, euskararen balorazioan gehieneko puntuazioa lortzeko nahikoa da euskararen bigarren hizkuntza-eskakizuna betetzea. Baina, gehieneko puntuazioa lortu arren, ezagutza maila hori ez da nahikoa lanpostu batzuetan euskara erabiltzeko.
- Arlo judizialean herritarraren hizkuntza-eskubideak bermatzeko itzulpenak bultzatzen ditu Legeak. Hala ere, itzulpenak prozesua moteldu eta komunikazioa eragotzi egiten duela uste da, eta batzuetan interpretazioak egiten dira, nahiz eta hizkera juridikoak ahalik eta zehaztasun gehiena eskatzen duen.

Bere VI. Liburuan ukitutako kidegoen Estatutu Juridikoa zehazten duen abenduaren 23ko 19/2003 LOren bidez egindako BJLOren aldaketak Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen lanpostuen hizkuntza-eskakizunei eragiten dieten arazoak arautzen ditu.

Ondorioz, 520. artikulua berriaz eta hurrengoetan lanpostu batzuk berezitat joko dira, hizkuntza propioa ezagutzea lanpostu horietan aritzeko nahitaezkoa denean.

Era berean, eta langileen hautapenari dagokionez, 483.2 artikuluari jarraiki, hizkuntza jakitea egiaztatu beharko da dagokion autonomia-erkidegoan lanpostua esleitzeko ondoreetarako.

Era berean, eta langileen hautapenari dagokionez, oposizioz edo oposizio-lehiaketaz libreki sartzeko, eta 483.2 artikuluari jarraiki, hizkuntza jakitea egiaztatu beharko da dagokion autonomia-erkidegoan lanpostua esleitzeko ondoreetarako.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren eta Justizia Administrazioiko langile funtzionarioen sarrera eta lanpostuak betetzeko prozedura eta sustapen profesionala arautzen dituen erregelamenduaren arabera, barne-sustapenen txanda murriztuaren kasuan, hizkuntza ofizialari dagokion merezimenduaren balorazioak, baita beste probek eta merezimenduek ere, gaitzuen zerrenda erabakiko dute.

Lanpostuak esleitzerakoan, berriz, 530. artikuluan ezartzen da zenbait lanpostutarako nahitaezko betekizuna izango dela hizkuntzaren ahozko eta idatzizko ezagutza egiaztatzea, bete beharreko eginkizunen izaeragatik eskakizun hori nahitaezkoa denean eta lanpostuen arteko erlazioetan hala ezartzen denean.

Aipatu beharra dago, halaber, BJLOko 471. artikulua gai horretan eskumena duten Autonomia Erkidegoei ahalmena ematen diela aipatutako VI. Liburuaren garapena eska dezaketen erregelamenduak onartzeko.

Aipatutako aurrekarietan eta dagozkion eskumenen egikaritzan oinarrituz, Eusko Jaurlaritzak 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, onartu zuen, EAeko Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa, besteak beste, lanpostu berezituari hizkuntza-eskakizunak esleitzeko prozesua bideratzen duena. Ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuaren eta uztailaren 29ko 152/2008 Dekretuaren ildotik, oraingo honek praktikan gauzatu nahi du koofizialtasun-erregimena, euskal herritarrei zerbitzu hobea emate aldera. Berriki egindako lege-aladaketak eta bulego judizialaren antolakuntza eta funtzionamendu-egitura berriak abiarazteko beharra direla medio, ezinbestekoa zen aurreko Dekretua - 2008ko uztailaren 29koa, alegia- berriro formulatzea.

174/2010 Dekretuan ahalegina egin da herritarrek hizkuntza propioa erabiltzeko duten eskubidea eta hizkuntzak arlo judizialean duen zabalkunde soziologikoa uztartzeko. Oreka hori helburu, lanpostu zehatz batzuk bereiztearen aldeko apustua egin da, lanpostua lortu eta hartan jarduteko hizkuntza-gaitasun zehatz baten arabera euskara-maila izatea eskatzen duten lanpostuetan, hain zuzen ere.

1.2.4 Erregistro Zibileko Legea aldarazten duen 12/2005 Legea

Erregistro Zibileko 1957ko ekainaren 8ko Legearen 23. art. aldarazten duen ekainaren 22ko 12/2005 Legeak ezartzen du gaztelania ez den hizkuntza ofiziala duten Autonomia Erkidegoek dagozkien hizkuntza ofizialean egin ahal izango dituztela idazpenak bai eta ziurtagiriak edo bestelako agiriak jaulki ere.

Konstituzio Auzitegiak adierazi du **Konstituzioaren 3. artikulua** ahalmena ematen diela hizkuntza propioa duten Autonomia Erkidegoei, haien Autonomia Estatutuaren ezarritakoaren barruan, ofizialtasun-kontzeptua arautzeko. Hots, ofizialtasun horren oinarritzko edukia ezarri eta, horrez gain, hizkuntza propioa normalizatzeko eta sustatzeko beharrezkoak diren neurriak erabakitzea esan nahi du horrek.

Espainiako errealitate eleanitza aitortzean, Estatuari dagokio, erregistroen eta tresna publikoen izaera arautzeko duen eskumenaz baliatuz, Erregistro Zibila arautzea. Eta Estatuari arautze horretan errespetatu behar da legeria autonomikoetan agertzen den ofizialtasun bikoitzaren printzipioa, Erregistro publikoetan egiten den hizkuntzaren erabileraren inguruan. Modu horretan bateratzen dira Estuari eta gaztelaniaz gain beste hizkuntza ofizial bat duten Autonomia Erkidegoei dagozkien hizkuntzen erabileren inguruko Erregistro Zibileko jarduerak.

Lege horrek arau orokor bat ezartzen du, eta horren arabera Erregistroa kokatua dagoen lurraldearen hizkuntza ofiziala erabiliz egin behar dira idazpenak, eta gaztelania ez den hizkuntza ofizial propioa duten Autonomia Erkidegoetan, berriz, Erregistro Zibileko liburu-etako orriak, inprimakiak, zigiluak eta sistema informatikoak bi hizkuntzetan zabaldu behar dira. Hortaz, 1957ko ekainaren 8ko *Erregistro Zibileko Legea* aldatu egiten da, eta 23. artikulua bukaeran honako testua duen paragrafoa gehitzen zaio:

«Idazpenak gaztelaniaz edo Erregistro Zibila kokatua dagoeneko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial propioan egingo dira, agiriaren edo adierazpenaren hizkuntzaren arabera. Agiria elebiduna bada, Erregistroan aurkezten duenak adierazten duen hizkuntzan egingo dira. Betiere, Autonomia Erkidegoaren hizkuntzari buruzko legeriak erregistro publiko-etako idazpenak gaztelania ez den beste hizkuntza batean egiteko aukera ematen badu».

Honako taula honetan laburtu dugu atal honetan azaldutako hizkuntza-eskubideen oinarriko zuzenbide-esparrua:

4. Taula: Hizkuntza-eskubideen esparru juridiko garrantzitsuena.

Konstituzioa	3. art.: Gaztelaniaren ofizialtasuna, eta, ondorioz, herritar guztiek gaztelania ezagutzeko duten eginbeharra, eta hizkuntza autonomikoen koofizialtasuna, lurralde horretako botere publiko guztientzat.
	122. art.: <i>BJLOk finkatuko ditu epaitegi eta auzitegien eraketa, jardunbidea eta gobernua. Epaile eta magistratuek kidego bakar bat eratuko dute. BJKN beraren gobernurako organoa izango da.</i>
Autonomia Estatutua eta EAEko legeria	3/1979 Lege Organikoa, 6. art.: <i>Euskararen ofizialtasuna gaztelaniarekin batera, eta bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Erakundeek bermatuko dituzte hizkuntzen erabilerak, eta inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.</i>
	<i>Eusko Legebiltzarreko 10/1982 Legea, Hizkuntza Normalizazioari buruzkoa. 9. art.: Herritar guztiek duten eskubidea beraiek aukeratutako hizkuntza erabiltzeko Justizia Administrazioarekiko harremanetan.</i>
	2010 Dekretua, ekainaren 29koa, EAEko Justizia Administrazioiko hizkuntza- normalkuntzari buruzkoa, besteak beste, lanpostu berezietuei hizkuntza- eskakizunak esleitzeko prozesua bideratzen duena.
BJLO	231. art.: <i>Epaileek, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta epaitegietako eta auzitegietako gainerako funtzionarioek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala erabil dezakete, alderdietako inork aurka egiten ez badu defentsa- gabezia alegatuz. Hala ere, alderdiek bi hizkuntza ofizialetatik edozein erabil dezakete ahozko edo idatzizko adierazpenak egiteko. Adierazpen horiek itzuli egingo dira defentsa-gabezia alegatzen denean.</i>
	341. art.: <i>Karrera judizialeko kideentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko, merezimendutzat joko da hizkuntza ofizial propioa jakitea.</i>
	16/1994 Legea: <i>Langileak transferitzen dira: ofizialak, laguntzaileak, agenteak eta auzitegietako medikuak.</i>
	19/2003 Legea: <i>Lan-jarduera antolatzeko tresna gisa hartzen dira lanpostuen arteko erlazioak, pertsonaleko gaitan eskumena duen Administrazioari garrantzia emanez.</i>
Erregistro Zibila	12/2005 Legea, <i>Erregistro Zibileko Legea</i> aldarazten duena

1.3 ESKU ALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNA


2001 ean, Espainiako gobernuak Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna berretsi zuen, 1992ko azaroaren 5ean Europako Kontseiluak Estrasburgon onartutakoa, eta, aldez aurretik, 22 Estatuk berretsitakoa.

Ereku urriko hizkuntzak babesteko helburuarekin egin zen Gutuna, hizkuntza horiek kultura-ondare izan arren, arriskuan baitaude (Gutunaren zioen azalpenean ezartzen den moduan), eta bertan adierazten da Estatu kontratugile bakoitzak zein hizkuntzaren erantzule egiten den zehaztu behar duela gutuna berrestera (3.1 art.). Espainiak deklaratu zuen Espainiako Estatu Autonomia Estatuetan aitortutako hizkuntza guztiek merezi dutela (bai ofizialek, baita ofizialak izan gabe babesa merezi dutenek ere) Gutunak ematen duen babesa.

Gutuna berretsi ondoren, zuzenean aplikatzen da Espainiako ordenamendu juridikoan, eta ez da arauetan garatu behar aplikatzeko. Hala ere, bertan ezarritakoa hain abstraktua denez, Estatu sinatzaileen legeriara egokitzeke ezartzen da.

Gutunak jasotzen duen moduan, Estatu sinatzaileek txostenak egin beharko dituzte gutuna aplikatzeko hartzen dituzten neurrien berri emanez. Txosten horiek Europako Kontseiluko idazkari nagusiari aurkeztu beharko zaizkio.

PROZEDURA



2002. urtean aurkeztu zuen Espainiako Estatuak bere txostena, eta adierazi zuen Gutunean ezarritako helburuak, printzipioak eta gainerako gomendioak bermatzeko eta betetzeko nahikoa zela indarrean zegoen legeria.

Administrazioko arlo guztietarako orokorrak diren helburu batzuk zehazten dira Gutunean: eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak aberastasun kulturalaren azalpen direla aitortzea, hizkuntza horiek babesteko sustapen-ekintzen beharra, hizkuntza bakoitzaren eremu geografikoa errespetatzea, lehendik dauden edo etorkizunean egingo diren administrazio-banaketek hizkuntza horiek sustatzeko oztopo ez izatea, etab.

Hala ere, politika orokorrak alde batera utzita, Administrazio Publikoko arlo guztietan eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen erabilera sustatzeko neurri zehatzak ezartzen ditu Europako Gutunak. 9. artikuluan Justizia Administrazioan hartu beharreko neurriak aipatzen dira:

JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOAN ESQUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN ERABILERA SUSTATZEKO NEURRIAK

Zigor-arloko prozeduretan, zibilekoetan eta administrazioarekiko auzietakoetan honako konpromiso hauek hartuko dituzte alderdiek:

- Bermatzea alderdietako batek hala eskatzen duenean, organo jurisdikzionalak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan arduratuko direla prozeduraz; eta/edo
- Bermatzea akusatuari bere eskualdeko edo eremu urriko hizkuntzan hitz egiteko eskubidea; eta/edo
- Ziurtatzea demandak eta idatzitako edo ahozko frogak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan egoteagatik soilik ez ezestea; eta/edo
- Prozedura judizialeko agiriak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan idaztea, aldez aurretik eskatuta, eta, behar izanez gero, interpreteak edo itzultzailea erabiltzea, interesdunei inolako gastu gehigarrikerantz erantsi gabe; eta/edo
- Aurreko ataletan azaldutakoa betetzeko eta, behar izanez gero, interpreteak eta itzultzaileak erabiltzeko -interesdunei inolako gastu gehigarrikerantz jarri gabe neurriak hartzea.

Aplikazetetik salbuesten dira dagokien barrutietan bizi diren eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza hitz egiten duten pertsonen kopuruak lehen azaldutako neurriak justifikatzen baditu. Gainera, kontuan hartu behar da hizkuntza horietako bakoitzaren egoera eta epaileak uste izatea paragrafo horretan azaldutako aukeraren batek justizia- administrazioa ez duela inolara ere oztopatzen.

Era berean, alderdiek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Estatuan egindako agiri juridikoen baliozkotasuna ez baztertzearik, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan soilik idatzita egoteagatik; edo Estatuan egindako agiri juridikoen baliozkotasuna alderdien artean ez baztertzearik eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan soilik idatzita egoteagatik, eta aipatutako hizkuntza hitz egiten ez duen hirugarren baten aurrean agiri horiek erabil daitezkeela ziurtatzea, betiere agiriaren edukia hirugarrengorantz ezagutzera ematen badio agiriaz baliatu nahi duenak.
- Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan eskuragarri izatea estatuko legegintzazko testu garrantzitsuenak eta hizkuntza horiek hitz egiten dituztenei erreferentzia egiten dietenak, testu horiek lehendik beste modu batera ez badaude behintzat.

Espainiako gobernuak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen -beste batzuen artean, euskararen- egoerari buruz aurkeztutako txostenean adierazi zuen Gutuneko printzipioak bermatzeko nahikoa zela indarrean zegoen legeria. Txostenari buruz honako hauek aipa daitezke:

- Hizkuntza koofiziala merezimendutzat baloratzea ez da nahikoa justiziaren zerbitzu publikoaren hartzaileak diren herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- Karrera judizialaren, fiskalaren eta idazkaritza judizialaren karreraren gaur egungo araudiak ez du batere aukerarik ematen lanpostuak esleitzeko prozesuan EAEn behar soziolinguistikoekin bat datozen hizkuntza-irizpideak aplikatzeko.
- Gaztelania jakiteko banakako eginbeharra soilik aipatzen da Konstituzioan, eta, horrekin batera, herritar guztiek dakitenaren presuntzioa.
- Aurreko araudian edozein kasutan eska zitekeen itzulpena, baina 16/1994 Lege Organikoan ezartzen da itzulpena ofizioz egiteko erabaki judiziala har daitekeela soilik "legeek horrela ezartzen dutenean".
- Ez da betetzen eremu estataleko legeak hizkuntza erregionaletan argitaratzeko betebeharra, baina eskualdeko hizkuntza erabiltzen dutenek ere nahitaez bete behar dituzte lege horiek. Gai hau azpimarragarria da, araudia ez betetzeaz gain, segurtasun juridikoaren gabezia ere sortzen delako: bi hizkuntzetako testuak interpretatzean nahasmena sor daiteke, berariaz homologatutako testurik ez badago.

Bukatzeko, 2005eko irailaren 21ean Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari buruzko Adituen Batzordeak Espainiak hitzartutako konpromisoei buruzko lehen txostena argitaratu zuela aipatu behar da. Txosten horretan jasotzen dira, besteak beste, Adituen Batzordeak Espainiako agintariei Justizia arlorako ematen dizkien gomendioak:

- Marko juridikoa aldatzea, argi gelditu dadin Euskadiko zigor-arloko, zibileko eta administrazio-ko agente judizialek euskaraz egindako prozedurak izapidetuko dituztela, alderdietako batek hala eskatzen badu.
- Akusatuari euskara erabiltzeko eskubidea formalki bermatzea, gaztelania menderatzen badu ere.
- Beharrezko diren neurriak hartzea, hala dagokionean, prozedurako alderdiei jakinarazteko, EAeko agente judizialek prozedura hori euskaraz egiteko betebeharra dutela alderdietako batek hala eskatzen badu, Espainiak hitzartutako konpromisoen arabera, eta Gutuneko l.a.i, l.b.i eta l.c.i paragrafoei jarraituz. Konpromiso horietan adierazten da organo jurisdikzionalak, alderdietako batek hala eskatzen duenean, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzan arduratuko direla prozeduraz, bai zigor-arlokoetan, zibilekoan eta baita administrazioarekiko auzietan konpetentzia duten jurisdikzioen aurrean egiten direnetan ere.
- Epaitegietan euskara lan-tresna gisa erabil dezaketen EAeko Justizia Administrazio-ko maila guztietako langileen, eta bereziki epaileen eta fiskalen ehunekoa handitzeko neurriak hartzea.
- EAeko Justizia Administrazio-ko langileentzat eta abokatuentzat trebakuntza-programa egokiak antolatzea.
- Estatuko legegintzazko testu garrantzitsuenak, eta bereziki euskaldunei dagozkienak, beharrezko den garaian euskaraz ere eskuragarri egoteko neurriak hartzea. Horretarako,

neurririk egokiena euskarazko itzulpen ofiziala argitaratzea litzateke, gaztelaniazko bertsio ofiziala argitaratzen den une berean.

Europako Kontseiluko Ministroen Kontseiluak Espainiako agintariei eskatu die Adituen Batzordearen iradokizun guztiak kontuan har ditzatela, baina horretarako beharrezko ikusten du Justizia Administrazioaren karrerako egitura eta prestakuntza berrantolatzea, Autonomia Erkidegoetan dauden Justizia Administrazioiko langileen ehuneko garrantzitsu batek eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen ezagutza izan dezan.

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Gutunean aurreikusitako metodologiari jarraituz, 2006an ekin zitzaion bigarren gainbegiratze-zikloari eta Espainiak gutunean jasotako konpromisoek izan duten aplikazioari buruzko bigarren txostena aurkeztu zuen. Espainiako Administrazioak gutuna zenbateraino bete zuen ebaluatzeko lehen zikloan azaldu zen bezala, Justizia Administrazioa da Espainian oztoporik gehien dituen puntuetako bat. Horregatik, komeni da kontuan hartzea botere judizial bakarra dagoela eta gobernu organo bakarra duela, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, alegia. Gutunak Espainian izan duen betetze mailari buruzko lehen ebaluazioaldian nabarmendu zenez, hizkuntza koofizialak Justizia Administrazioan normalizatzeko dagoen zailtasun nagusia da jurisdikzio-organotako langileek dagokion hizkuntza behar bezala jakiteko daukaten zailtasuna, prozedura batean hizkuntza koofiziala aukeratzen duten pertsonak beren hizkuntza eskubideak gauzatzeko adinako gaitasuna, alegia. Zailtasun hau areagotu egiten da kontuan hartzen baldin badugu Justizia Administrazioaren zerbitzuan ari direnak, bereziki epaile eta fiskalak, Estatu osorako kidegoetan daudela antolatuta eta, beraz, Estatuaren lurraldeko edozein tokitan izan dezaketela lanpostua, erkidego elebidunak tartean direla.

Hala eta guztiz ere, arazo orokor horretaz oharrarazi ondoren, txostenak 2002-2005 urteetan hartutako neurriak azpimarratzen ditu, prozesuko alderdien hizkuntza bermeak indartzeko balio izan duten neurrian:

- 19/2003 Lege Organikoa, abenduaren 23koa, Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, aldatzen duena, besteak beste, honako berritasunak ekarri dituena: idazkari judizial izateko hizkuntza koofizialen ezagutza meritu gisa baloratzea, bulego judizialtako langileen lanpostu zerrendetan bertako hizkuntza ofizialaren ezagutzaren eskakizuna txertatzeko aukera zabaltzea edo zenbait lanpostutarako bertako hizkuntza jakitea eskakizun bihurtzea, beti ere bete beharreko zereginen izaera kontuan izanda.
- 1451/2005 Errege Dekretua, abenduaren 7koa; dekretu horrek Justizia Administrazioaren zerbitzuan dauden funtzionarioei dagokien Erregelamendua onartzen du, sarrerari, lanpostuen hornidurari eta barne promozioari dagokiona eta, meritu gisa bada ere, hizkuntza koofizialak jakitea bere egiten duena.
- 1608/2002 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, idazkari judizialen kidegoaren Erregelamendu organikoa onartzen duena, aurrekoaren antzekoa edukiaren aldetik.

Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak 2008ko abenduan egin zuen horri buruzko txostena. Batzordearen ustez, Botere Judizialaren Lege Organiko berria onartuagatik, konpromisoen betetze maila ez da oraindik ere nahikoa. Onartzen du akusatuak zigor prozeduretan eskualdeko hizkuntza erabiltzeko daukan eskubidean izan den aurrerakada eta baita idazkari judizialen kasuan hizkuntza koofizialen ezagutza baloratzeko modua arautu izana ere, nahiz eta deitoratu epaile eta magistratuen kasuan gauza bera egin ez izana. Zigor prozeduretan hizkuntza koofiziala erabiltzeko eskubideari dagokionez, Batzordeak dio egoera ez dela aldatu, alderdietako batek hizkuntza hori ulertzen ez duenean, Epaileak eskubideari ezezkua eman behar baitio eta hori Espainiak hartutako konpromisoen aurkakoa da, herritarrak hizkuntza hori interpreteen bidez erabil badezake ere.

Aurrerapen batzuk gertatu direla onartu arren, Adituen Batzordeak lehen txostenean ageri ziren hiru kontu azpimarratu nahi izan ditu berriz ere eta, ondorioz, gomendio hauek ematen ditu:

- Marko juridikoa aldatzea, argi gelditu dadin Euskadiko zigor-arloko, zibileko eta administrazioko aginte judizialek euskaraz egindako prozedurak izapidetuko dituztela, alderdietako batek hala eskatzen badu.
- Beharrezko diren neurriak hartzea, hala dagokionean, prozedurako alderdiei jakinarazteko, EAEko aginte judizialek prozedura hori euskaraz egiteko betebeharra dutela alderdietako batek hala eskatzen badu, Espainiak hitzartutako konpromisoen arabera, eta Gutuneko la.i, l.b.i eta l.c.i paragrafoei jarraituz.
- Epaitegietan euskara lan-tresna gisa erabil dezaketen EAEko Justizia Administrazioako maila guztietako langileen, eta bereziki epaileen eta fiskalen ehunekoa handitzeko neurriak hartzea.

2. HIZKUNTZA NORMALIZAZIOAREN AURREKARIAK

Eusko Legebiltzarreko 10/1982 Legea, Euskara Normalizatzeko Oinarrizkoa, onartu zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan etengabeko ahalegina egin da euskararen erabilera sustatzeko. Hala ere, Administrazio Publikoko gainerako eremuetan baino beranduago iritsi da Justizia Administrazioa euskalduntze-prozesua eta bertan euskara sustatzekoa; betearazte-erritmoa ere beste Administrazioetan baino motelagoa da, konplexutasun handiko eremu administratiboa baita. Konplexutasun hori, beste hainbat inguruabarren artean, eskumenak dituzten hainbat eremu egoteagatik, eta langileekin eta legegintzarekin lotura duten gaiak egoteagatik sortzen da.

Aipatu behar da Eusko Jaurlaritzako VIII. Legegintzako Planifikazioan esaten dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoan euskara erabiltzeko Normalizazio Plana egin eta abian jarriko dela 2008-2012 aldirako. Plan honek helburu bera betetzera dator, baina Justizia Administrazioaren izaera bereziari egokituta.

Azken urteotan Justizia Administrazioko helburu gisa planteatu da euskararen sustapena, eta, zentzu horretan, proiektu eta jarduera garrantzitsu ugari egin dira, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileen lankidetzarekin eta beste kolektibo batzuetako pertsonen laguntzarekin.

2001. urtean ekainaren 26ko 117/2001 Dekretua publikatu zen, Justizia Administrazioko hizkuntzaren normalizazioari buruzkoa. Aipatu behar da Estatuko Gobernuak Dekretu horren aurkako eskumengatazka positiboa aurkeztu zuela, dekretua etetea lortuz, nahiz eta gero, 2002ko ekainaren 5eko autoak etenaldia berriro ere altxatu, eta hango testuaren alde ebatzi.

Lehenengo Dekretu hori argitaratu zenetik, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoaren bidez aldatu zen BJLO, Kudeaketa prozesal eta administratiboko kidegoaren, Izapide prozesal eta administratiboko kidegoaren, Laguntza judizialeko kidegoaren eta Auzitegiko medikuen kidegoaren izaera juridikoa ezartzen zuena. Aldaketa horrek, halaber, Dekretu berria idatzi beharra ekarri zuen (bai edukian eta baita aurrekoa eguneratu zelako ere), Justizia Administrazioan hizkuntza-normalizazioaren prozesua arautzeko. Horiek horrela, uztailaren 29ko 152/2008 Dekretua idatzi zen, baina honen aurka ere Estatuko Gobernuak indargabetze-errekerimendua aurkeztu zuen. Horrez gain, berriki egin diren legealdaketak eta bulego judizialaren antolakuntza eta funtzionamendu-egitura berria abiarazten ari direla eta, ezinbestez formulatu behar izan da, eta horren emaitza da 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa.

2.1 JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILAREN ETA CC.OO., ELA, CSI/CSIF, LAB ETA UGT SINDIKATUEN ARTEKO IV. AKORDIOA. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOAK EUSKAL ADMINISTRAZIO OROKORREKO FUNTZIONARIOEKIN NOLA PAREKATU ETA BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALA EZARTZEA ARAUTZEN DUENA.

Abuztuaren 31 ko 223/2010 Dekretu bidez onartu zen akordio hau, eta bere VII. tituluari, 60., 61. eta 62. artikuluetan jasotzen dira Justizia Sailaren eta aipatutako sindikatuen arteko akordioak, hizkuntzaren normalizazioaren ingurukoak, eta zehazki 174/2010 Dekretuan jasotako neurri nagusiei buruzkoak, EAEko Justizia Administrazioan hizkuntzaren normalizazio-prozesua arautzeko.

Horren ondorioz, alderdi sinatzaileek Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen inplikazioa bultzatuko dute Hizkuntza Normalizazioaren Plan honetan; Plan horren barruan lanpostu-jabedunek lehentasuna izango dute bitartekoen aldean eta herritarrekin zuzeneko harremana duten lanpostuak euskalduntzea lehenetsiko da eta izapideak euskaraz egin ahal izateko bideak egingo dira. Akordioak irauten duen bitartean gutxienez langileen %50ek euskalduntzeko aukera izango du eta trebatzaileen lana ere bermatu egingo da. (60. art.).

Halaber, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileei zuzendutako hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroak bultzatuko dituzte bi alderdiek, horretarako hainbat modulu eskainiz (61. art.).

Azkenik, 174/2010 Dekretuak arautzen duenez eta Normalkuntza plana aplikatuz, lanpostu-zerrendetara, arian-arian, euskara dela-eta bereizturik dauden lanpostuak ere biltzea adostu dute. Maiztasun finko batez egingo da lan-hizkuntza euskara dutela-eta bereizturik dauden lanpostu horietara sartu diren langileek beren konpromisoak betetzen dituzten jakiteko jarraipena, akordioan bertan aipatzen diren adierazleak erabilita.

2.2 174/2010 DEKRETUAREN GARAPENA

2.2.1 174/2010 Dekretuaren aplikazio-eremuko lanpostuetan hizkuntzagatik bereizitakoak zeintzuk diren ezartzea.

Aipatu behar da 174/2010 Dekretua onartu izanak duen garrantzia, benetako tresna baita Justizia Administrazioa euskalduntzeko. Bost jarduera-eremu nagusi ditu: lanpostu jakin batzuk lanpostu berezi gisa sailkatzea, unitateak katalogatzea hizkuntza betebeharreki begira, funtzionarioentzat hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroak antolatzea, bulego judizial eta fiskaletan eta zerbitzu erkideetan euskara erabiltzeko programak sustatzea eta lan-talde elbidunak funtzionalki eratzea bulego judizial, fiskaltza eta zerbitzu erkide (174/2010 Dekretuan Zerbitzu Orokor izenez agertzen dira) guztietan.

Hizkuntzaren araberako hainbat unitate katalogatzen dira eta horiei dagozkien lehentasunak, euskalduntze prozesuari intentsitate desberdinak emanez. Unitate horiek Unitate Elebidunak direla esan ahal izango da, unitatearen kide guztiak edo ia guztiak euskaldunak direnean.

Aipaturiko jarduera-eremuak garatzeaz gain, bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko jokabideak ezartzen dira, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

2.2.1.1 Dekretu berria idatzi arte burutu den prozesua eta horrek dakarren aldaketa.

Azken dekretua idatzi aurretik, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren (Gaur egun Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritza dena) Hizkuntza Normalizatzeko Sailak EAera transferitutako kidegoei zegozkien hizkuntza- eskakizunen balizko esleipenei buruzko azterketak egin zituen, baina hizkuntza- eskakizunak esleitzeko benetako prozesua abian jarri gabe.

Hala ere, BJLOren erreformaren ondoren eta 174/2010 dekretuan ezarritakoari jarraiki, data bakoitzerako zein lanpostu bereiziko diren eta noiz zehazteko aukera ematen da, lanpostu-zerrenda onartzen den bakoitzean. Hori dela-eta, lanpostu berriak sortzerakoan, dagokienak bereiziko dira eta noizko bete beharko diren zehaztuko da.

- Destino-zentro beraren barruan edo mugape judizial bereko destino-zentro guztien multzoaren barruan zein lanpostu bereiztu behar diren zehazterakoan, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

Herritarrekiko harreman zuzena.
Lanpostuaren erantzunkizun maila.
Lanpostuaren autonomia maila.
Lanpostuaren zereginak betetzeko hizkuntzak duen garrantzia.
Lanpostuaren erlazioen maiztasuna eta ezaugarriak.

- Dotazioen artean hauek izango dute lehentasuna:

Dagokion HE egiaztatu duen titularren dotazioa.
Dotazio hutsa.
Lanpostua bereizteko eskatu duen titularraren dotazioa. Eskaera-konkurrentzia gertatuz gero, adin txikiena duten funtionarioei dagozkionak.
Dagokion Heren mailatik hurbilen dagoen dotazioa .
HE egiaztatu behar ez duen titularraren dotazioa ((adin handiena duen titularraren dotazioari emango zaio lehentasuna).
Titular gazteena duen dotazioa.
Lanpostuan aintzinasun gutxien duen titularraren dotazioa.

Era berean, zein lanpostu bereiztu behar diren zehazterakoan kontuan hartuko dira eragindako langileen funtzio eta zeregin guztiak, Dekretu berriak jaso bezala, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 521. eta 530. artikuluetako aurreikuspenari jarraituz.

Dekretuaren aplikazio-eremuko lanpostuak bereizteko prozesua hamar urteko plangintzaldi batean gauzatuko da, eta plangintzaldi hori bosna urteko bi epealditan banatuko da.

Lanpostuak bereizteko prozesuak ez du zertan intentsitate berekoa izan organo judizial guztietan.

Lanpostuak bereizteko prozesu hau euskararen normalizazioan aurrerapauso handia izan da, bulego judizialean ezagutza maila oinarrizkoena bermatzeaz gain, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko programak ezartzeko aukera ematen baitu.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeari buruz, berriz, transferitu gabeko langileei dagokionez, aipatu behar da 2005 arte EAEko Karrera judizialeko kideek soilik zutela hizkuntza- eskakizuna egiaztatze probetara aurkezteko aukera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Lankidetzaren hitzarmenaren arabera. EAEko justizia-administrazioaren zenbait esparrutan euskararen erabileraren normalizazioari buruzko hitzarmen hori 1999ko otsailaren 18an sinatu zen.

Hala ere, esan beharra dago 2005etik aurrera egiaztatze-bide hori fiskalei eta idazkari judizialen kidegoari ere zabaltzen zaiela, Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak 2005eko uztailaren 28an sinatutako hitzarmenari esker. Ez da txikia gertakizun horren garrantzia, batik bat hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroetan parte hartzen duten gehienak idazkari judizialen kidegokoak direla eta haien euskalduntze-prozesuan pizgarri izan daitekeela kontuan hartzen badugu.

2.2.1.2 Lanpostuak bereizteko eta bereizketaren datak zehazteko azken proposamena

Gauza jakina da hizkuntza normalizatzeko edozein prozesutan helbururik garrantzitsuenetariko bat inplikaturako pertsonen hizkuntzaren ezagutza egokia lortzea dela, dagozkien betebeharrak eta erantzukizunak erraztasunez bete ahal izateko.

Beraz, eta 174/2010 Dekretuan ezarritakoari jarraiki, helburu nagusietako bat hizkuntzagatik lanpostuak bereiztea eta bereiztutako bakoitzaren data zehaztea eta lanpostu horietan dihardutenek hizkuntza eskakizunak egiaztatzea izango da.

Plan honek iraungo duen 10 urte horietan gutxienez bereiztuko diren lanpostuak zeintzuk izango diren zehaztu da eta Lanpostu Zerrendatan argitaratu. Kontuan hartuta bost urteko bi epealdi aurreikusten direla lanpostu batzuk 2010erako bereiztu dira eta besteak 2015 eta 2020rako.

Horrez gain, oraingo egoeraren eta hizkuntza normalizatzeko planaren bukaera-dataren egoera idealaren arteko konparazio bat egin da, planifikazio-prozesu orekatu eta erreal bat egiteko asmoz.

Hori guztia kontuan hartuz, bitarte horretan liberatu ahal izango liratekeen karrerako funtzionarioen kopurua kalkulatu da, eta gero horrek gutxi gorabehera izango duen kostu ekonomikoa.

Bestetik, nabarmendu behar da Plan honen helburuetako bat langileen hizkuntza-gaitasuna lortzen joateaz gain, eta egindako esfortzuari ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzeaz gain, lanpostuetan euskararen erabilera sustatzea eta dagokien maila lortu duten funtzionarioek duten hizkuntza-gaitasunaren maila mantentzea ere badela, lanpostu horietako hizkuntza espezifiko erabiltzeko kanpoko teknikarien laguntza lortuz.

2.2.2 Hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroak.

Hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroak ondo bereizten diren bi taldeei zuzenduta daude: alde batetik, Justizia Administrazioako funtzionarioei, eta, bestetik, karrera judizialeko kideei, karrera fiskaleko kideei eta idazkari judizialei.

2.2.2.1 Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioentzako ikastaroak

Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileak euskalduntzeko programaren barruan aipatutako langile horien hizkuntza-gaitasuna sustatzeko helburua du programa horrek, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzak du euskarazko ikastaroen urteko eskaintza egiteko ardura.

Karrerako funtzionarioak, lanpostu hutsa betetzen ari diren bitarteko funtzionarioak, errefortzuko bitarteko funtzionarioak eta ordezeko bitarteko funtzionarioak sartzen dira deialdi hauetan. Orain arteko deialdietan, hala ere, ikastaro trinkoak karrerako funtzionarioentzat izan dira soilik. Errefortzukoak eta ordezekoak, berriz, laneko ordutegitik kanpoko ikastaroetan soilik hartu ahal izan dute parte.

Ikastaro hauek Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzak kudeatzen ditu, baina Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzak eman behar du dagokion ikasketa-baimena. BJLOren 504. artikuluan eta Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendariaren 2007ko urriaren 15eko ebazpenean 2005eko urtarrilaren 10eko Ebazpena aldatzen duenean, baimen eta lizentziak eskuratzeari buruzkoan oinarrituz ematen da baimen hori.

Deialdiak ikasturte osoa hartzen du, eta eskolatze-orduak ikasturte osoari buruzkoak dira (urritik ekainera). Azaroan deialdi osagarri bat egiten da, eta bertan aurkeztutako aukerak mugatuagoak izaten dira.

Norberari egokitutako eskaintza da; hala, bada, eskatzaileen ezagutza mailari eta interesari moldatzen zaio. Eskola-egutegiari jarraiki egiten denez, urritik ekainera bitartean burutzen da.

Azken urteotan euskara-ikastaroetan parte hartu dutenen kopuruak ageri dira ondorengo taulan:

IKASTURTEA	PARTE-HARTZAILEAK
2001/2002	419
2002/2003	424
2003/2004	480
2004/2005	499
2005/2006	496
2006/2007	506
2007/2008	500
2008/2009	451
2009/2010	409
2010/2011	338
2011/2012	278

Euskarak argi eta garbi egin du aurrera, hizkuntza-gaitasunaren aldetik bederen, eta hori izan daiteke euskara ikastaroetan parte hartzen dutenen kopurua jaistearren arrazoietakoa bat, azken urte hauetako aurrekontuen murrizketak ere eragina izan arren.

Aipatzekoa da, halaber, aurrekoarekin lotuta, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko kudeatzaile, izapidegile eta laguntzaile judizialen kidegoetako eta auzitegiko medikuen kidegoko funtzionarioak egiaztatzen ari diren hizkuntza-eskakizunen kopurua, Euskal Administrazio Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen araudiarekin bat, halako kolektiboek irekita dauden eta HAEE-IVAPek antolatzen dituen probak gaindituz.

Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko sistema kudeatzeko, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saila beharrezkotzat jotzen dituen hitzarmenak bideratzen ari da, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen bidez..

HAEE-IVAPek egingo ditu kidegoan sartzeko hautespen-probetarako ezarri diren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketak eta lehen aipatutako EAEko kidegoetako lanpostuetarako lekualdatze-lehiaketei dagozkienak.

Justizia Administrazioaren titularrei dagozkien hizkuntza-eskakizunen egiaztapenei buruzko datuak ageri dira ondorengo taulan; kidego bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna zenbatek egiaztatzen duten ikus dezakegu bertan. Kontuan hartu behar da titularren datuak bakarrik agertzen direla taula horietan eta IVAPeko erregistroan agertzen direnak baino ezin izan ditugula zenbatu; egon badago jende gehiago hizkuntza eskolan, euskaltegietan... hizkuntza eskakizunen pareko tituluak lortu dituen baina IVAPen homologaziorik eskatu ez duena.

Justiziako langileen hizkuntza-eskakizunak (2010/11/17)


JUSTIZIAKO LANGILEAK-TITULARRAK																
	ARABA				BIZKAIA				GIPUZKOA				GUZTIRA			
	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA
1.HE	4	3	5	12	8	21	10	39	7	13	3	23	19	37	18	74
2.HE	4	19	7	30	34	106	51	191	25	33	11	69	63	158	70	291
3.HE	7	4	6	17	42	47	18	107	18	11	1	30	67	65	22	155
4.HE					1	1		2	4		1	5	5	1	1	7
GUZTIRA HE batekin	15	26	18	59	85	175	79	339	54	57	16	127	154	261	111	527
GUZTIRA HE gabe	47	66	16	129	166	298	116	580	51	61	29	141	268	425	165	857
TITULARRAK GUZTIRA	62	92	34	188	251	473	195	919	105	118	45	268	422	686	276	1384
% HE batekin	24,2	28,3	52,9	31,4	33,9	37	40,5	36,9	51,4	48,3	35,6	47,4	36,5	38,1	40,2	38,1
% HE gabe	75,8	71,7	47,1	68,6	66,1	63	59,5	63,1	48,6	51,7	64,4	52,6	63,5	61,9	59,8	61,9

Kidegoari dagokion HE egiaztatu duten Justiziako langile TITULARRAK


ARABA				BIZKAIA				GIPUZKOA				GUZTIRA			
KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA
7	23	13	43	43	154	69	266	22	44	13	79	72	221	95	388

HEen bat egiaztatua duen Justiziako langile TITULARRAK, baina kidegoari dagokiona baino beheragokoa.

ARABA				BIZKAIA				GIPUZKOA				GUZTIRA			
KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA	KUD	IZAP	LAG	GUZTIRA
8	3	5	16	42	21	10	73	32	13	3	48	82	37	18	137



	2005	2010
HE batekin	454	527
HE gabe	980	857



	2005	2010
Beren lanpostuko HE duten titularrak	332	388

Lan-munduan euskara erabiltzeko konpromiso berriak: Hizkuntza ikasten egindako ahalegina eguneroko lanean hizkuntza hori gehiago erabiliz isla dadin, hizkuntza- gaitasuna lortzeko ikastaroetara joaten diren funtzionarioek beren organo judizialean antolatutako euskara erabiltzeko Programetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute.

2.2.2.2 Karrera judizialeko kideentzako, karrera fiskaleko kideentzako eta idazkari judizialentzako ikastaroak

1999ko otsailean, BJKNk eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten EAEko Justizia Administrazioaren eremu batzuetan euskararen erabilera normalizatzeko. Hitzarmen horretako helburuetako bat karrera judizialeko kideek -epaile eta magistratuek- kidego horietako izangaiek eta bake-epaileek euskara ikastea da, eta helburu hori lortzeko, euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak eskaintzen zaizkie talde horiei. Era berean, hitzarmen horren bitartez HAAE-IVAPEk antolatutako hizkuntza-eskakizuneko probetara aurkezteko aukera ematen zaie.

Hainbat epaile eta magistratu (une honetan 7) 8.a baino maila altuagoko ikastaroetan ari dira parte hartzen, eta, horietako batzuk hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketetara aurkeztu dira. Orain arte, 21 epaile eta magistratu titular eta ordezkok egiaztatu dute bigarren hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa.

Beste alde batetik, 1997ko maiatzean, EAEko fiskalen eta idazkari judizialen prestakuntza arautzen duen lankidetzahitzarmena sinatu zen Justizia Administrazioako Azterlan Juridikoen Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Hitzarmen horri esker, Karrera Fiskaleko kideek eta Idazkari Judizialen kidegokoek Justizia Sailak eskainitako euskara ikastaroetako moduluetan parte hartu ahal izan dute, baina lanetik erabat liberatu gabe eta HAAE-IVAPEk antolatzen dituen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetan parte hartzeko aukerarik gabe.

Aipagarria da, Justizia Ministerioaren eskumeneko kidegoek Karrera Judizialeko kidegoei ematen zitzaizkien aukera berberak izatea aldarrikatzen zutela, hau da, euskara ikasteko laneko erabateko liberazioa, eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetara aurkezteko aukera, eta urte batzuk geroago, 2005eko uztailan hain zuzen ere, Justizia Ministerioak, eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak hitzarmen berria sinatu zutela euskararen trebakuntzaren inguruan. Horri esker, kidego horiek aukera izango zuten, lehenengo aldiz, hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroetan parte hartzeko, karrera judizialeko kideen baldintza bertsuetan, eta baita hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetara aurkeztekoa ere.

Parte-hartzaileen kopurua aldatuz joan da azken urte hauetan. 2000-2001 deialdian hizkuntza-trebakuntzako moduluetan parte hartu zutenen ehunekoa hurrengo hiru deialdietan dezente jaitsi bazen ere, 2003-2004 deialditik aurrera goraka hasi zen pixkanaka eta 2005-2006ko deialditik aurrera eskaera-kopuruaren igoera nabarmenagoa izan zen. Esan beharra dago eskaera-


kopuruaren igoera hori batez ere idazkari judizialen artean izan zela nabarmena, hain zuzen ere gorago aipatutako 2005eko Justizia Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena sinatu zenetik aurrera.

2007-2008tik aurrera, berriz, eskaera-kopuruak behera egin zuen, eta orduan ere idazkari judizialen artean izan zen beherakada nabarmenagoa. Horren arrazoietakoa bat zera izan liteke: aipatutako 2005eko hitzarmenaren bitartez fiskalei eta idazkari judizialei laneko erabateko liberaziorako aukera ematen bazitzaien ere, berez ezin izan ziren hurrengo deialdietan aukera horretaz baliatu Justizia Ministerioak horretarako bideratu behar zituen kasuan kasuko baimenak eman ez zituelako. Dena den, esan bezala, arrazoietakoa bat litzateke, gainontzeko kidegoetan ere eskaera-kopuruaren jaitsiera egon baitzen.

5. Taula: Matrikulazioen eboluzioa euskalduntze ikastaroetan.

	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12
Karrera Judizialeko kideak	20	25	33	46	40	28	21	27	18
Karrera Fiskaleko kideak	1	12	13	17	18	17	10	8	6
Idazkari Judizialak	31	31	29	52	51	34	29	23	19
Bake-epaileak	9	12	10	12	15	10	11	16	4
GUZTIRA	61	80	85	127	124	89	71	74	47

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila



Une honetako euskara-ikastaroetako eskaeren argazkia edukitzearen, azken deialdian, 2011-2012 deialdian alegia, euskara-mailaren araberako eta kidegoen araberako datuak jasotzen ditu ondoko taulak.

6. Taula: 2011-2012 deialdiko eskaerak kidegoka eta mailaka

Gainditutako azken maila	Karrera Judizialeko kideak	Karrera Fiskaleko kideak	Idazkari Judizialak	Bake-Epaileak
0-1	3		4	
2	3		1	1
3	2	1	2	
4		3		1
5-6		1	3	
6			1	
7-8	2	1	3	2
9	2			
10	2		2	
11	1		2	
12				
Alfabetatzea (I-II)				1
Zehaztu gabeko maila	3			
401			1	

Hizkuntza-eskakizunen eta horien baliokideen egiaztapenari dagokionez, ondoko taula honetan jasota daude Karrera Judizialeko, Karrera Fiskaleko eta Idazkari Judizialen kidegoen arabera datuak.

7. Taula: Egiaztatutako HEen eta baliokideen kopurua, kidegoka

HEak eta baliokideak	Karrera Judizialeko Kideak	Karrera Fiskaleko kideak	Idazkari Judizialak
1	12	4	7
2	9	3	15
3	11	2	12
4	1		

Itrurria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila

Datu hauek emateko kontuan hartu dira 2010ean EAEko epaitegietan lanean ari diren Karrera Judizialeko kideak, Karrera Fiskaleko kideak eta Idazkari Judizialak, Eusko Jaurlaritzako datuen arabera. Horrela bada, Karrera Judizialeko 232 kideen, Karrera Fiskaleko 97 kideen eta 184 idazkari judizialen datuak kontrastatu dira.

2.2.3 Bulego judizialean euskara erabiltzeko programak.

1999. eta 2000. urteetan abian jarri ziren "Euskara erabiltzeko esperientzia pilotuak". Helburu nagusia ekimen hori ezarriko zen organo judizialean euskararen erabilera bermatzea eta bultzatzea zen. Azken finean, euskararen erabilera handiagotu nahi zen bulego judizialean. Erabilera-programa hauetako partaidetza handitzen joan da urtez urte, adibidez:

Proposatutako organoen kopurua	BIZKAIA	GIPUZKOA
32	15	17
Bake-epaitegiak	4	4
Gainerako organoak	11	13

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila. 2003ko martxoa.

Proposatutako pertsonen kopurua	BIZKAIA	GIPUZKOA
114	42	72
Bake-epaitegiak	10	9
Gainerako organoak	32	63

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila. 2003ko martxoa.

Partaidetza-tasa % 80tik gorakoa izan zen aurrez ikusitakoarekiko, eta hori, noski, planen garapenaren ardura duten teknikariek positiboki baloratu zuten.

Balorazio positiboa egin arren, alderdi batzuk azpimarratu behar dira:

1. Baliabideen eskuragarritasun mugatuak prozesuaren erritmoa baldintzatu zuen, Lau teknikari aritu baitziren lanean, guztira 24 talde dinamizatzen.
2. Esperientzia pilotuak lehentasunezko zatik jo ziren organoetan oso zentratuta garatu ziren. Horregatik, gaur egun esperientzia horiek beste organo judizial batzuetara zabaltzeko beharra ikusten da.
3. Epaile eta idazkari judizialen konpromiso maila oso mugatua izan zen.

Gerora, garai bateko "Euskara erabiltzeko esperientzia pilotuak" gaur egun "Euskara Erabiltzeko Programak" deitzen direnak bihurtu dira. Programa hauek, hortaz, garai batean organo judizialean egindako jardueren jarraipen naturala besterik ez dira, baina jasotako esperientzietan oinarrituz eta kanpoko kontratazioei esker esperientzia horiek indartuz, aurretik egindako lana sendotzea lortu da, eta, halaber, organo gehiagotara zabaltzea eta horietako bakoitzean jarduera zehatzagoak eta espezifikoagoak burutu dira, funtzionarioen premia zehatzak kontuan hartuz.

Azken hamarkada honetan aurrerapen handia egin da euskararen normalkuntzan. Hona hemen prozesu honetan mugarri izan diren berrikuntza batzuk:

A) JBAT

JBAT aplikazio informatikoak berebiziko garrantzia izan du Justizia Administrazioiko dokumentu elebidunen gorakadan. JBAT barruti eta jurisdikzio guztietara hedatzen joan da pixkanaka eta, prozesu hori aurrera joan ahala, bi hizkuntzetan ateratzen diren agirien hazkundea ikusgarria izan da. Puntu hau 2.2.5 atalean ageri da zehatzago.

B) Trebakuntza

Langileen hizkuntza-prestakuntza hobetzeko 2007an hasi ziren trebakuntza saioak ematen. Trebatze-saio horien helburu nagusia funtzionarioak lanean, ahoz zein idatziz, euskara ere erabiltzen trebatzea da. Trebatze-saioak epaitegian bertan ematen dira, astean ordubetez, eta jendaurreko orduetatik kanpo, bertan egiten den lana ahalik eta gutxien oztopatzeko.

Trebatze-saioak bi eratakoak izaten dira:

1. Idatzia lantzekoak: dokumentu elebidunak izapidetzeko baliabideak eskaintzen zaizkio ikasleari, horretarako material berezia sortuz eta Intranetekoaz baliatuz.
2. Ahozkoa lantzekoak: mintzamina hobetzea dute helburu; hau da, euskaraz hitz egiteko beldurra kenduta eta euskarazko terminologia juridikora hurbilduta, ahal den neurrian, funtzionarioak herritarrari arreta euskaraz ematea.

Hauek dira trebatze saio horietan sortu diren talde-kopuruak eta parte hartu duten ikasleenak:

Lurraldea	2007-2008		2008-2009		2009-2010	
	Taldeak	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak
Araba	7	57	5	49	5	38
Bizkaia	31	271	24	240	20	175
Gipuzkoa	17	138	20	137	19	107
EAE	55	466	49	426	44	320

C) Erregistro zibilak

Erregistro zibilei dagokienez, lege erreformarik garrantzitsuenak 2005ekoa izan zen, ekainaren 22ko 12/2005 Legea, Erregistro Zibilaren 1957ko legearen 23. artikulua aldatu zuena.

Lege horrek ezartzen duen arau orokorraren arabera, inskripzioak Erregistroa dagoen lurraldean ofiziala den hizkuntza batean egin beharko dira, eta gaztelania ez den berezko beste hizkuntza ofiziala duten

autonomia erkidegoetarako ezartzen du Erregistro Zibileko liburuetakako orriak, inprimakiak, zigiluak eta sistema informatikoak bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dutela.

Erreforma horretatik sortu zen aplikazio informatiko berri baten premia liburu tradizionalak ordezkatu eta euskaraz edo gaztelaniaz egindako inskripzioak posible egiteko. Gai honetan eskumena berea duenez, Justizia Ministerioari zegokion INFOREG aplikazioa garatzea hizkuntza koofizialak erabili ahal izateko.

Lege erreformak eta INFOREG aplikazioak Erregistro Zibilean ateak zabaltzea euskarari, eta, beste hizkuntza koofizialak bezalaxe, mendeetan baztertuta egon den eremu batean sartzea lortu da. Euskararen presentzia hiru modutara gauzatzen da: inskripzioak euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dira, ziurtagiri laburtuak elebidunak izango dira eta hitzez hitzeko ziurtagiriak ere hizkuntza batean zein bestean emango dira.

Erregistro Zibilean 2009ko lehen hilabeteetan egin zen INFOREGen inplantazioa EAEko 14 barrutiburuetan eta ondoren bake epaitegietan, beraz, arlo horretan bermatuta geratu dira herritarren hizkuntza eskubideak.

D) Bake epaitegiak: Epainet

EpaiNET aplikazioa sortzeko arrazoiak bake epaitegien ezaugarri berezien ondorio dira neurri handi batean: bake epaitegien sakabanaketa, horrek dakarren isolamendu eta komunikazio faltarekin; oso gune soziolinguistiko desberdinetan egotea; zaharkitutako agiriak erabiltzea... eta horren guztiaren ondorioz, besteak beste, euskararen erabilera urria eta agiri elebidunak ateratzeko zailtasun ikaragarria.

Panorama hori aztertu ondoren, nabarmen geratu zen irtenbide global bat bilatu beharra zegoela: tresna berri bat sortzea euskararen erabilera sustatzeko eta, horrekin batera, kudeaketa sinplifikatu eta modernizatzeko premiari erantzun integratua emateko. EpaiNET aplikazioak Access eta VWord programak konbinatzen ditu: izapideak datu base batean bildu eta erregistratzen ditu eta, aldi berean, agiri elebidunak ekoizteko tresna ere bada. Bi helburu betetzen ditu horrela: eguneroko lanaren kudeaketa hobetzea eta euskaren erabilera bermatzea epaitegiko komunikazio idatzietan.

Euskararen erabileran aurrera egiteko dakartzan onurak garbiak dira: euskararen erabilera ziurtatuta dago, testuak normalizatuta daude eta adostasunez erabakitako terminologia eta fraseologia erabiltzen ditu eta, bide batez, dagokion instantzietan erabakitako hizkuntza- irizpideak gizarteratzeko bide egokia da. Herritarrek, bizi diren herrian bizi direla, beti testu bera jasoko dutela bermatzen da, eta horrela pixkanaka euskara juridikoa finkatzen eta hedatzen agunduko du.

2010 urtearen bukaeran 163 izan dira EpaiNET instalatuta daukaten bake epaitegiak, eta 122 aplikazioa prozedura eta izapide gehienetarako erabiltzen dutenak. Hona hemen datuak lurraldeka:

Lurraldea	BBEEen kopurua	Instalatuta BBEEak	Instalatuta %	Erabilera BBEEak	Erabilera %
Araba	51	38	% 75	37	% 73
Bizkaia	101	67	% 66	38	% 38
Gipuzkoa	81	60	% 74	51	% 63
EAE guztira	233	165	% 71	126	% 54

E) Intraneta


Justizia Administrazioako langileen esku dagoen intraneteen ere lan handia egin da eduki berriz hornitzeko eta euskaraz lan egiteko laguntzak eskaintzeko: hizkuntza- gomendioak, hiztegi terminologikoa, lege-testu elebidunak, trebatzaileari kontsulta egiteko bidea...

Horrez gain, intranet beraren euskarazko interfazea zabaltzeko eta erabilera indartzeko ahalegina egin da. Momentu honetan 200dik gora dira intraneta euskaraz erabiltzen duten funtzionarioak, erabiltzaileen % 10 inguru.

2.2.4 Agiri juridikoen normalizazioa. Euskarazko Agiriak Normalizatzeko Batzordea

Hurrengo prozesua jarraitzen du agiri juridikoen normalizazioak eta euskalduntzeak:

47. orrialdeko prozesua



2001etik aurrera, lehen aipatutako erabilera-eraberritzea pilotuak burutu zirenetik, 2010eko bukaera arte, 2.959 agiri normalizatu dira, bi hizkuntzetan prestatzeko. Esan beharra dago kopuru hori gutxi gorabeherakoa dela, etengabe ari baita eguneratzen. Normalizazio- eta estandarizazio-prozesuaren hasierako helburua Justizia Administrazioaren organo guztietara zabaltzea zen, eta prozesu hori ari da pixkanaka ezartzen.

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak epaitegietako agiriak euskaraz normalizatzeko batzordea sortu zuen 1996an, epaitegietako sistema informatikoan agertzen ziren agiri judizial guztien idazkera adosteko eta normalizatzeko asmoz. Aipatutako batzorde horretako partaide izan ziren hasieratik: Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko Fakultateko irakasleak, EHuko Zuzenbide Fakultatekoak, HAEE-IVAPeko ordezkariak, epaile eta abokatu euskaldunak, euskara-teknikariak, Justizia Administrazioiko itzultzaileak eta itzulpenak egiteko kanpoko laguntza teknikoa.

Hasierako urteetan iana nekeza eta zaila izan zen, irizpideak oraindik bateratu gabe zeudelako. Urte haietako desadostasunak terminologia zein sintaxi mailakoak izan ziren; baina agiri judizialetan erabiltzen zen terminologia eta sintaxia normalizatzeko adostasuna behar zen, eta pixkanaka-pixkanaka irizpideak bateratzen joan ziren.

Gaur egun, EAEko euskara juridikoaren egoera asko hobetu da. Horretan ari diren erakundeei esker, zuzenbideko terminologiaren normalizazioan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, eta itzulpen juridikoak asko sendotu dira. Batetik, hainbat legezko testu itzuli dira, hizkera juridikoaren oinarria sendotzen ari da eta euskarazko "corpus" garrantzitsu bat osatzen ari da, Justizia Sailaren, HAEEn, Deustuko Unibertsitatearen eta EHUren lanari esker. Bestetik, unibertsitateek Zuzenbideko irakasgaien testuliburu gehienak itzuli dituzte. Eta, gainera, zenbait erakunde zuzenbide-arlo batzuetako lexikoa lantzeko eta horri buruzko hiztegiak egiteko elkarlanean aritu dira azken urteotan. Lan horiek guztiek oinarri sendoa ematen diete terminologiari zein esapideei, epaitegietako agiriak itzultzerakoan sortzen diren arazoei aurre egin ahal izateko, eta, azken finean, oso garrantzitsua delako, normalizazioaren ikuspegitik, terminologia juridikoa eta legezkoa bat etortzea.

Agiri judizialak normalizatzeko batzordea azkarrago ari da lanean testuinguru horretan, gaur egun terminologia-arazoak gutxiago direnez (nahiz eta oraindik desadostasun batzuk egon) sakonago egin baitaiteke lan testuen idazkerari dagokionez. Gaztelaniatik euskararako aldatze hutsa izan ez dadin, testuak euskaraz zuzenean idatziko balira bezala erredaktatu nahi dira, baina segurtasun juridikoa bermatuz, eta gaztelaniaren mezu osoa xeheki islatuz.

Azken hamahiru urte hauetan euskarazko testuen sorreran aurrerapauso handiak eman direla esan daiteke, eta lan hori Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzaren mendeko Agiriak Euskaraz Normalizatzeko Batzordeak burutu du: terminologia normalizatuz, testuen kalitatea zainduz eta lana errentagarri bihurtuz. Hamahiru urte hauetan ia 3.000 eredu itzuli eta normalizatu dira. Epaitegietako, auzitegietako eta fiskaltzetako eredu gehienak euskaratu dira. Horiek guztiak Interneten daude kontsultagai, Justizia Saileko web-gunean (helbidea: <http://intranet.justizia.local/euskaraz-lan-egiteko>)

Edonola ere, normalizatzeko geratzen diren dokumentuen kopurua oraindik oso handia da. Organo judizialetan gehien erabiltzen diren dokumentuak itzulita dauden arren, ezin dugu ahantzi gaur egun guztira 20.000 dokumentu judizial inguru erabiltzen dela.

Idazki honen II. eranskinean eskaintzen da agirien normalizazioaren eta estandarizazioaren gaur egungo egoera.

2.2.5 Agiri juridikoen normalizazioa. Bulego iudizialeko ereduaren diseinuari eta erabilerari buruzko datuen laburpena. 2004 eta 2010 bitartean.

2.2.5.1 Epaitegietako eredu elebidunen diseinua

Bulego judizialeko eredu-bildumak, hau da, bi hizkuntzetan ateratzeko prest daudenak, asko hazi dira azken sei urteetan.

Agiri-ereduen egoeraren konparazioa (2004tik 2010era)		
	Bi hizkuntzatan	Ehunekoak
2004	516	% 4
2007	1.928	% 14
2010	3.205	% 22

Agiri elebidunak sortzeko modu bat baino gehiago dago, zailtasun mailak ere desberdinak direlako. Ez baita gauza bera zitazio-zedula bat sortzea edo auto bat sortzea.

Badira automatikoki ateratzen diren agiri estandarizatuak. Agiri hauek Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi guztietan bi hizkuntzetan automatikoki prestatzen dira, ordenagailuz lagundutako itzulpen-tresnarik gabe. Agiri horiek elebidunak dira, eta langile guztiek erabiltzen dituzte, euskaraz jakin ala ez, agiri horietan sartu beharreko datuak (izen- abizenak, zenbakiak,...), euskarazko zein gaztelaniazko zutabeen berdina sar baitaitezke.




Baina badira dokumentu konplexuagoak ere, testu motaren bat sartzea eskatzen dutenak. Horrelakoetan, funtzionarioak lan bera bi aldiz egin behar ez izateko, alegia, testua gaztelaniaz eta euskaraz sartu behar ez izateko, ordenagailuz lagundutako itzulpen-sistema instalatzen da. Horrela, programa honek funtzionarioak sartzen duen gaztelaniazko agiria euskaratu egiten du, zenbait baldintza betez gero.

Azken urteetan asko aurreratu da alor honetan ere eta barruti eta jurisdikzio gehienetara iritsi da ordenagailuz lagundutako itzulpen-sistema. Hona hemen koadro batean bilduta hedapen horren emaitza:

JURISDIKZIOA	ORDENAGAILUZ LAGUNDUTAKO ITZULPEN-SISTEMAREN EZARPEN MAILA
Lehen auzialdia	% 78
Instrukzioa	% 50
Zigor Arloa	% 20
Lan Arloa	% 72
Administrazioetako Arloa	% 79
Merkataritza Arloa	% 81
Probintzia Auzitegia	% 58
Auzitegi Nagusia	% 0
Dekanotza	% 0
Fiskaltza	% 0
Adingabeena	% 0
Emakumeen aurkako indarkeria	% 0

2.2.5.2 2004 eta 2010 urteetan emititutako agiri judizialen kopurua eta ehunekoak

Datuak probintziaka:



2.2.6 Hizkuntza-normalizaziorako beste jarduera batzuk

EAEko Justizia Administrazioan hizkuntza normalizatzeko Dekretua garatutako jarduez eta euskara juridikoaren estandarizazioarekin lotura gain, Justizia Administrazioa Eraberritzeko Zuzendaritzako Hizkuntza Zerbitzuak beste normalizazio-jarduera batzuk ere garatzen ditu.

- Hedatze-jarduerak: 2001. urtean hizkuntzaren normalizaziorako sail berezi bat sortu zen JustiziaNet-en eta Justizia Administrazioaren Intraneten, eta ordutik sail hori etengabe osatuz eta eguneratuz joan da. Gaur egun, interneten zein intranetean aurki ditzakegu hizkuntza normalizazioari zuzenduriko atal bereziak, gogoan izan behar da atal hauek etengabe ari direla eguneratzen.
- **Interneteko** atarian herritarrei zuzenduta bi ataletan jasotzen da informazioa:

1. EpaBi atalean hizkuntza normalizazio proiektuari buruzko informazio instituzionala aurki dezakegu. Bertan besteak beste:

- Helburuak
- Normalkuntzako lantaldea
- Proiektuak
- Legeria eta euskara
- Aurkezpen bideoa
- Ohiko galderak
- Estatistikak
- Esteka interesgarriak



2. “Euskara Justizian” atalean euskaraz lan egiteko lagungarri izan daitezken tresna eta baliabideak eskaintzen dira:

- Hiztegi terminologikoa on line
- Lege-testuen kontsulta sistema
- Albisteak
- Hizkuntza-eskubideak eta euskara sustatzeko bideak
- “Testu elebidunak” puntuan Euskarazko Agirien Normalizaziorako Batzordeak aztertu eta adostu dituen testu guztiak agertzen dira.

- **Intraneteko** EpaiBiren atalean, bestalde, inplikaturako agenteei zuzenean eragiten dizkieten gaien inguruko informazioa eskuragarri izatea lortu nahi zen. Horretarako bi atal nagusi garatuko dira:

1) EpaiBiren gaineko informazioa:

- epaiBiren gaineko informazioa: nortzuk gara, zer egiten dugu, non gaude?
- Indarrean dauden normalizazio proiektuei buruzko informazioa
- Normalizazio-plana, dekretua, lanpostuen zerrendak
- Langileen proposamenak jasotzeko atala

2) Hizkera judizialak behar duen euskara zehatza erabiltzen laguntzeko tresna egokiak eskaini nahi dira "Euskaraz lan egiteko" atalean:

- Pilulak edo gomendio linguistikoak argitaratzen dira maiztasun jakin batekin
- Hiztegi terminologikoa
- Lege-testuen itzulpenen gaineko kontsulta sistema
- Testu elebidunak" puntuan Euskarazko Agirien normalizaziorako Batzordeak aztertu eta adostu dituen testu guztiak agertzen dira.
- Prestakuntza atalean auto-prestakuntza aukerak indartu nahi dira ohiko prestakuntza ahaztu gabe.
- EpaiBiko lantaldearen aurkibidea
- Aplikazioak euskaraz eskatzeko aukera
- On line baliabideak
- Zuzenberri aldizkaria formatu digitalean

Aplikazio informatikoa: Hiru azpisistema dituen aplikazio informatiko integral bat sortu da, jarduera hauek kudeatzeko: hizkuntza-eskakizunak esleitzea, hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroak kudeatzea eta

banakako planak sortzea eta jarraipena egitea. Tresnak aukera ematen du, batetik, organo judizialek epe zehatz batean nahitaez bete beharreko hizkuntza- eskakizunak zein puntutaraino bete duten ikusteko, eta, bestetik, ikastaroetan parte hartzen duten langile guztien euskalduntze-prozesuaren banakako jarraipena egin daitekeelako.

Aipagarria da, halaber, Justizia administrazioko langileek, Justiziako extranet bidez, zuzemen edo izapide hauek egin ahal izango dituztela: eskaintzen diren ikastaroak kontsultatzea, izena ematea, baja hartzea, uko egitea... Hartara, erabiltzaileen zein dinamizatzaileen lana asko arindu eta erraztuko da.

Lege-testuen itzulpena: Justizia Sailak eta Deustuko Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sinatutako hitzarmenei esker, lege-testu ugari itzuli dira eta itzultzen ari dira gaur egun. Orain arte argitaratutakoak hauek dira:

- Adingabeen Erantzukizun penala arautzen duen Lege Organikoa. Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen abenduaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa. 7/2000 eta 9/2000 Lege Organikoen aldatutakoak gehitzen dira, baita 9/2002 Lege Organikoen aldatutakoa ere.
- Prozedura Zibileko Legea. 2005
- Konkurtso Legea (lehenengo zatia). 2005
- Prozedura Kriminaleko Legea. 2005
- Espainiako Konstituzioa, 2005
- Lan Prozedurako Legea (2007)
- Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legea. (2007)
- Era berean, ondorengo legeak itzulpen-fase desberdinetan daude:
 - 1) Botere Judizialaren Lege Organikoaren V. eta VI. Liburuak (itzulpena oso aurreratua).
 - 2) Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa (itzulpena oso aurreratua).
 - 3) Kontsumitzaileen defentsarako Lege Orokorra (bukatzear).
 - 4) Produktu akastunek eragindako kalteen Erantzukizun Zibilaren Legea (bukatzear).

Ondorengo taulan, euskararen normalizazioan eta sustapenean garatutako jarduera garrantzitsuenak jasotzen dira:

Erakunde arteko Batzordea	<p><i>Partaideak:</i> BJKN, EAEko AN, Eusko Jaurjaritza (Justizia eta Hizkuntza Politika), HAAE, Legekarien Euskal Kontseilua, organo judizialen, fiskalen eta idazkari judizialen elkarteak ordezkatzen.</p> <p><i>Eginkizunak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza-normalizazioan aholkatu. ▪ Ordezkatutako talde eta erakundeen bidez proiektuak bultzatu. ▪ Ordezkatutako talde eta erakundeen artean komunikazio- lanak egin.
Hizkuntza- normalizazioaren zerbitzuetatik burututako jarduera garrantzitsuenak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nahitaez bete beharreko hizkuntza eskakizunak esleitu. ▪ Hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroak eman: <ul style="list-style-type: none"> ➢ Funtzionarioei. ➢ Karrera judizial eta fiskaleko kideei, idazkariei eta bake-epaileei. ▪ Euskara erabiltzeko programak. Bulego judizialean euskararen erabilera sustatzea.
Agiri juridikoen normalizazioa.	Euskarazko Agiriak Normalizatzeko Batzordea sortu, agiri erabilienak euskaraz normalizatzeko helburuarekin.
Beste jarduera batzuk	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hedatze-jarduerak: JustiziaNet. ▪ Aplikazio informatiko zehatz bat sortu, Hizkuntzaren Normalizazioari buruzko gaiak kudeatzeko. ▪ Legezko testuak itzultzea.

3. HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO PLANA

Badira urte batzuk planaren lehenengo testua idatzi zela. Proiektua garatzeko diseinatu zen prozedura, batetik, inplikaturako eragileei egindako kontsultetan, eta bestetik, aurrez eskuragarri zegoen materialean oinarritu zen.

Agenteen parte-hartzea hiru egitura diferenteren bidez bideratu zen:

- Elkarriketak: elkarriketa pertsonal sakonak egin zitzaizkien Justizia Administrazioaren organigramako hainbat eremutako pertsoneri.

7. Taula: Egindako elkarriketak

Elkarriketatutako kolektiboa	Elkarriketatutako pertsonen kopurua
Erregistro zibileko funtzionarioak	2
Bake epaitegietako funtzionarioak	2
Ejko hizkuntza normalizazioko teknikaria	1
Epaileak	3
Idazkari Judizialak	2
Fiskalak	1
Kabinete psikosozialeko teknikaria	1
Auzitegiko Medikua	1
Abokatuak	4
GUZTIRA	18

- Lantaldea: egiten ari ziren aurrerapenak aztertzeko eta baloratzeko lantalde bat osatu zen. Talde hau nahiko egonkorra zen, eta kasuan-kasuan arlo jakinetako ezagutza zuten kideak sartzen ziren lantaldean. Oro har, honako hau zen taldekideen jatorria: Justizia Saila, euskararen erabileraren inguruko esperientziak, HAAE, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, eta orduko Giza Baliabideen Zuzendaritza.
- Kontraste-taldea: berariaz horretarako sortutako talde batekin kontrastatu ziren, bai diagnostikoan, bai planifikazio-fasean atera ziren ondorioak. Talde honetan parte hartu zuten, alde batetik justizia-arloko eragileek, eta bestetik hizkuntza-normalizazioarekin erlazio estuagoa duten eragileek.


Gorago deskribatutako errealitatetik abiatuta, atal honetan Justizia Administrazioaren egoera baloratu eta diagnostikatu zen, eta ondoren, gidalerro orokorrak ezarri ziren hurrengo urteetan egin beharrekoa garatzeko.

Beraz, atal honetan ondo bereizitako bi sail jasotzen dira:

- Justizia Administrazioan euskarak bizi duen egoeraren diagnostikoa.
- Planifikazioa: Helburuak, estrategia-lerroak, eta jardun-plana.

Honako eskema honetan jaso da diagnostikoa eta planifikazioa garatzeko jarraitu zen prozesu estrategikoa.

Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Planaren prozesu estrategikoa



3.1 EAEKO JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOAREN EGITURA


Izatez, Justizia Administrazioaren egitura nahiko konplexua da, eta horrek edozein normalizazio-prozesu zailago egiten du. Honako irizpide hauen arabera definitzen da, oro har, Justizia Administrazioaren egitura:

- A. Hierarkia/gaiak: epaitegiak (bake-epaitegiak, lehen auzialdikoak, instrukziokoak, zigor-arlokoak, lan-arlokoak...), probintzia-azuzitegiak, azuzitegi nagusiak, Auzitegi Nazionala, eta Auzitegi Gorena.
- B. Langileak: karrera judizialeko kideak, karrera fiskaleko kideak, idazkari judizialen kidegoa, kudeaketa prozesal eta administratiboko kidegoa, izapide prozesal eta administratiboko kidegoa, laguntza judizialeko kidegoa, eta azuzitegiko medikuen kidegoa.
- C. Lurraldetasuna: udalerrri, barruti judizial, Lurralde Historiko, eta Autonomia Erkidegoan banatuta.

A). Hierarkiari dagozkion irizpideei jarraiki, Autonomia Estatutuko 34. artikulua dio EAEko Justizia Administrazioa BJLOn ezarritakoaren arabera egituratuko dela, eta Autonomia Erkidego osoan eskumena izango duen Auzitegi Nagusi bat izango dela bere organo gorena.

Hierarkia-irizpideetan oinarrituta, eta gorago emandako azalpenari jarraiki, botere judizialaren egitura honela dago egituratuta:

BOTERE JUDIZIALAREN ANTOLAMENDU MAILAKO EGITURA



EAEko Auzitegi Nagusia, Bilbon dagoena, da EAEko antolamendu judizialeko organo gorena. Auzitegi hau Bilbon dauden hiru salek osatzen dute: zibileko eta zigor-arlokoak, administrazioarekiko auzietakoak eta lan-arlokoak.

Bigarren maila hierarkikoa Probintzia Auzitegiak dira, probintzia bakoitzaren hiriburuan daudenak; probintziaren izena hartzen dute, eta lurralde historiko osora hedatzen da euren jurisdikzioa. Probintzia-auzitegiek bi sekzio edo gehiago izan ditzakete, zibil- eta zigor- arloko eskumenekin.

Gainera, arlo bakoitzean (zibilean, zigor-arloan, lan-arloan, eta administrazioarekiko auzietakoan) honako epaitegi hauek ditu:

- Lehen auzialdiko epaitegia: beharrezkoa den lurraldeetan barrutika antolatuta egon daiteke,
- Instrukzioko epaitegia: hau ere, beharrezkoa den lurraldeetan barrutika antolatuta egon daiteke,
- Administrazioarekiko auzietakoa,
- Lan-arlokoa,
- Espetxeratuaren zaintza,
- Adingabeen epaitegia,
- Merkataritza-arloko epaitegia,
- Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko epaitegia,
- Erregistro zibila, lurraldeetan barrutika antolatua,
- Bake-epaitegiak. Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegirik ez dagoen udalerrietan egoten dira.

Beraz, Justizia Administrazioaren egituran organo asko egoteak, eta organo edo sala bakoitzak lan egiteko oso modu desberdinak izateak, Justizia Administrazioaren egitura oso konplexu bihurtzen dute, eta horrek zailago egiten ditu planifikazioa eta normalizazioa.

B). Langileei dagozkion irizpideen arabera ere, Justizia Administrazioak egitura konplexua du. Izan ere, badaude Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten lan-kontratuko langileak eta langile administratiboak, eta karrera judizialeko eta fiskaleko kideak, eta idazkari judizialen kidegoa. Kidego hauetako bakoitzaren egoera oso desberdina da, bai orokorrean, bai eta hizkuntza-normalizazioari dagokionean ere. Justizia Sailak ez du inolako eskumenik karrera judizialeko, fiskaleko, eta idazkari judizialen kidegoko langileei dagokienez. Gainera, hauek guztiek botere hierarkiko handia eta bulego judizialeko langileen erantzukizuna dute. Era berean, prozesu judizialaren garapenerako berebiziko garrantzia duen taldea osatzen dute.


<ul style="list-style-type: none"> ▪ Karrera judizialeko kideak ▪ Karrera fiskaleko kideak ▪ Idazkari judiizialen kidegoa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileak eta langile administratiboak
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kudeaketa prozesal eta administratiboko kidegoa ▪ Izapidetza prozesal eta administratiboko kidegoa ▪ Laguntza judizialeko kidegoa ▪ Auzitegiko medikuen kidegoa ▪ AMEEko langileak ▪ Lantalde psikosozialeko langileak ▪ Langile administratiboak ▪ Adituak

C). Lurraldetasunari dagokionez, Konstituzioko 152. artikuluan xedatutakoarekin bat, Autonomia Erkidegoek probintzia baino eremu txikiagoa duten barruti judizialak eratzen parte hartzen du, eta barrutien buruak eta mugak zeintzuk diren erabakitzen dute.

Ondorio judizialetarako, Estatuaren lurralde-antolaketa honakoa da: erkidegoak, probintziak, barrutiak, eta udalerrriak.

Autonomia Erkidegoa	Auzitegi nagusien lurralde-eremuarekin bat dator. EAEn Bilbon dago.
Probintzia	Izen bereko administrazio-mugapeneko lurralde-mugekin bat dator. EAEko probintzietan probintzia-auzitegi bana dago.
Barruti judiziala	Udalerrri mugakide bat baino gehiagoz osatutako lurralde batasuna da. Udalerrri horiek probintzia berekoak dira eta haien mugapena probintzia-mugapenarekin bat etor daiteke. Barrutiek gutxienez lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegi bana edo gehiago dituzte. Barruti judizial batzuek badute lan-arloko epaitegia ere.
Udalerrria	Izen bereko administrazio-mugapenarekin bat dator. Udalerrri bakoitzean bake-epaitegi bat dago

Egitura hau dela eta, Euskal Autonomi Erkidegoak hamalau barruti judizial ditu.



Kontuan izan behar da barruti judizialek, euren artean oso errealitate soziolinguistiko desberdinak dituztela. Barruti batzuetan biztanleen % 80a euskalduna den bitartean, beste batzuetan euskaldun kopurua ez da % 12ra iristen.

Honek normalizazioan eragiten ez badu ere, berriro agerian uzten du Justizia Administrazioaren egoera zein konplexua den. Izan ere, metodologia konplexuagoa erabiltzera behartzen du, eta jardunak ezin dira barruti guztietan era homogeneoan ezarri, baizik eta, derrigor erantzun behar diete barruti judizial bakoitzaren behar bereziei.


Honako taula eta grafiko hauetan barruti judizialeko euskararen ezagutzari buruzko datuak ematen dira.

8. Taula: Biztanleen eta euskaldunen banaketa barruti judizialean. 2001.

Barruti Judiziala	2 urtetik gorako biztanleak	EAE guztira/g biztanleak	Euskaldunak	BJ guztira/g euskald.	EAE guztira/g euskald.	NBI
Vitoria-Gasteiz	245.642	12,08%	37.994	15,47%	5,78%	27,78%
Amurrio	33.818	1,66%	7318	21,64%	1,11%	34,04%
Durango	97.205	4,78%	48.536	49,93%	7,39%	60,55%
Barakaldo	259.941	12,78%	30.522	11,74%	4,65%	24,05%
Gernika-Lumo	86.221	4,24%	64.987	75,37%	9,89%	82,28%
Bilbo	485.601	23,88%	92.335	19,01%	14,05%	32,09%
Balmaseda	29.083	1,43%	3.783	13,01%	0,58%	23,77%
Getxo	139.237	6,85%	33.709	24,21%	5,13%	39,38%
Donostia	294.420	14,48%	115.598	39,26%	17,59%	51,70%
Azpeitia	60.682	2,98%	48.266	79,54%	7,35%	85,11%
Eibar	53.058	2,61%	31.933	60,19%	4,86%	68,28%
Irun	69.716	3,43%	26.603	38,30%	4,06%	47,46%
Tolosa	93.225	4,59%	62.531	67,08%	9,52%	74,76%
Bergara	85.398	4,20%	52.774	61,08%	8,03%	69,49%
GUZTIRA	2.033.247	100,00%	656.980	32,31%	100,00%	

Iturria: Eustat. JAHZ.

6. Grafikoa



Grafiko hauetatik honako ondorio hauek ateratzen dira:


Biztanleen ehunekorik altuena, hurrenez hurren, honako barruti hauetara atxikita dago: Bilbo, Donostia, Barakaldo, eta Gasteiz.

Biztanleen kopuruari dagokionez, desberdintasun nabarmenak daude barruti judizialen artean. Badaude Bilbo bezalako barrutiak (EAEko biztanleen % 24arekin), eta Balmaseda bezalakoak (% larekin). Beraz, oso desberdinak dira egitura, demanda kopurua, funtzionamendua, eta, azken batean, barruti judizialen konplexutasuna.

EAEen biztanle gehien dituzten barrutiek euskaldunen ehuneko txikiagoa dute, eta biztanle gutxien dituztenek ehuneko handiagoa. Horrela, Gipuzkoan EAEko biztanleen % 32a eta euskaldunen % 51 bizi da.

Barruti bakoitzeko datuen arabera ere, ezberdintasunak oso nabariak dira. Bereziki azpimarragarriak dira Azpeitia eta Gernika-Lumoko barrutiak, hauetan biztanleen % 70a baino gehiago euskalduna baita.

7. grafikoa: Barruti judizial bakoitzeko euskaldunen ehunekoa



Iturria: Eustat 2001


3.2 EGOERAREN AZTERKETA

3.2.1 Antolamendua

Atal honetan egituraren barne-antolamendua aztertuko da. Hau da, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren organigramatik abiatuta, euskara-zerbitzuak bertan duen kokatze funtzionala aztertuko da. Azterketa honen helburua zera identifikatzea da: batetik Justizia Administrazioan euskararen normalizazioa oztopatzen duten faktoreak, eta, bestetik, normalizaziorako mesedegarriak irizten direnak.

Euskara-zerbitzua, funtzionalki, bi eremuren zerbitzura dago, bakoitza ondo bereizitako funtzioak eta xede-publikoa dituena. Zerbitzuetako bat, 1998an hizkuntza-normalizaziorako teknikariak eta itzultzaileak Eusko Jaurlaritzako Sail guztietan sartzeko onartu zen planean oinarrituta sortu zen. Plan haren ondorioz, gaur egun Justizia eta Herri Administrazio Sailean teknikari batek eta bi itzultzailek dihardute lanean. Horien helburu nagusia Eusko Jaurlaritzako langileak eta Sailari atxikitakoak euskalduntzea da, eta, era berean, bertan euskararen erabilera sustatzea.

Beste alde batetik, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren mende, badago beste euskara-sail bat Justizia Administrazioarekiko Harremanetako arloan: euskara-zerbitzu honen helburu nagusia Justizia Administrazioaren barruan euskararen erabilera sustatzea da, bereziki organo judicial guztietan eraginez. Horretarako, hamabi normalizazio-teknikari ditu; horien artean daude euskara erabiltzeko programak dinamizatzeko teknikariak, kanpoko teknikarien laguntza jasotzen dutenak.



3.2.2 Organo judizialeko kide diren langileak

Kontuan izanik Justizia Administrazioaren barruko langile-taldeen arteko egoera oso desberdina dela, eta Sailak juridikoki talde guztiengan eragiteko aukera berak ez dituela, bi azterketa-eremu ezarri dira:

- Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioak.
- Karrera judizialeko kideak, karrera fiskaleko kideak, eta idazkari judizialak.

3.2.2.1 Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioak

Martxoaren 15eko 514/1996 Errege Dekretuak ezartzen ditu Estatuko Administrazioak EAera funtzioak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzko oinarriak, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko baliabide pertsonalei dagokienez.

Honela, otsailaren 16ko 249/1996 Errege Dekretuarekin onartzen da ofizial, laguntzaile eta agenteen erregelamendu organikoa, eta otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuarekin, auzitegiko medikuen erregelamendu organikoa; kidego hauek guztiak EAera eskualdatuta daude.

Ondoren, 117/2001 Dekretuan, Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalizaziorako neurriei buruzkoan, nahitaez bete beharreko hizkuntza-eskakizunen esleitze-proposamenak egiten zaizkie Autonomia Erkidegora eskualdatutako kidegoei. Berriki egin diren lege-aldaketak eta bulego judizialaren antolakuntza eta funtzionamendu-egitura berria abiarazten ari direla eta, ezinbestez formulatu behar izan da aipatutako dekretua, eta horren emaitza da 174/2010 Dekretua, ekainaren 29koa.

Justizia Administrazioan euskarak bizi duen egoeraren azterketako zati bezala, atal honetan eskualdatutako kolektiboek esleitutako hizkuntza-eskakizuna baloratuko da, baita hizkuntza-normalizazioaren aldeko eta aurkako alderdiak ere.

- KUDEAKETA PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGOA (OFIZIALAK). IZAPIDE PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGOA (LAGUNTAILEAK). ETA LAGUNTZA JUDIZIALEKO KIDEGOA (AGENTEAK)

Talde hauei esleitutako hizkuntza-eskakizuna (kudeatzaileei hirugarrena, eta, gainerakoei, bigarrena) nahikoa dela uste da bete behar dituzten zereginak kontuan hartuta. Kontuan eduki da antzeko zereginak dituzten beste administrazio batzuetan hizkuntza-eskakizun bera ezarri izana.

LANGILE-TALDE HAUEI ESLEITUTAKO FUNTZIOAK EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO	
<ul style="list-style-type: none"> ▪ <u>Izapide prozesal eta administratiboko kidegoa (laguntzaileak)</u>: Oro har, kidego honi dagokio kudeaketa prozesalaren lagungarri diren jarduera guztiak burutzea, karguaren espezializazioaren arabera, hierarkia errespetatuz, eta lanpostuen arteko erlazioetan ezarritakoarekin bat etorritik. Orokorrean, honako zeregin honekin dagozkio: prozeduren izapide orokorra egitea, tresna mekanikoak edo ofimatikoak erabiliz, eta, horretarako, agintzen zaizkion agiri, akta eta jakinarazpen guztiak prestatzea, eta autoak eta espedienteak egitea, goragoko mailan daudenean gainbegiratuta... ▪ <u>Izapide prozesal eta administratiboko kidegoa (laguntzaileak)</u>: Oro har, kidego honi dagokio kudeaketa prozesalaren lagungarri diren jarduera guztiak burutzea, karguaren espezializazioaren arabera, hierarkia errespetatuz, eta lanpostuen arteko erlazioetan ezarritakoarekin bat etorritik. Orokorrean, honako zeregin honekin dagozkio: prozeduren izapide orokorra egitea, tresna mekanikoak edo ofimatikoak erabiliz, eta, horretarako, agintzen zaizkion agiri, akta eta jakinarazpen guztiak prestatzea, eta autoak eta espedienteak egitea, goragoko mailan daudenean gainbegiratuta... ▪ <u>Laguntza judizialeko kidegoa (agenteak)</u>: Beste batzuen artean, zeregin hauek dagozkie: jakinarazpen, zitazio, epatze eta errekerimenduen komunikazio-egintzak burutzea, enbargoak betearaztea, polizia judizial gisa jardutea, eta judizio-aretoak behar bezala erabiltzeko eta horietan ordena mantentzeko arduratzea. 	
EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO LAGUNGARRI DIREN ALDERDIAK	EUSKARAREN NORMALIZAZIOA OZTOPATZEN DUTEN ALDERDIAK
<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzua euskaraz eskaintzeko • behar den hizkuntzaren ezagutza maila ez da oso handia laguntzaileen eta agenteen kasuan; # nahiko erraz lor daiteke maila hori. • Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreforma onartu zen. Erreforma horretan hainbat aldaketa proposatu ziren, esaterako, lanpostu-zerrenda bat egitea, titulazio maila altuagoa # eskatzea...; aldaketa horiek hizkuntza-normalizazioan izango dute eragina. Lanpostu-zerrenda bat diseinatzeak eta ezartzeak asko erraztuko du hizkuntza-eskakizunen esleipena. • Langileek euskalduntzearen aldeko jarrera dute, merezimendu gisa soilik baloratzen denean ere. • Gaur egun hainbat lanposturi hizkuntza eskakizuna esleitzeko 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza maila baxua eskatzen denez, hizkuntza egunero erabiltzen ez bada errazagoa da maila hori galtzea. ▪ Kolektibo hauengan zuzenean eragiten du lanpostuen mugikortasunak. Urtero, batez beste bi lehiaketa argitaratzen dira, eta horiei barne-sustapenak gehitu behar zaizkie. EAEko baldintza onak direla-eta, mugan dauden beste erkidegoetako langileak etortzen dira EAera. ▪ Agenteak jendearekin zuzenean harremanetan daudenez, garrantzi berezia du talde honen euskalduntzeak Justizia Administrazioak kanpora begira ematen duen lehen irudirako.

AUZITEGIKO MEDIKUEN KIDEGOA:

Talde hau nahiko berezia da, izan ere, hain gutxi izanik auzitegi-mediku izateko prestakuntza dutenak oso zaila da hizkuntza eskakizunen esleipen zorrotza egitea.

LANGILE-TALDE HONI ESLEITUTAKO FUNTZIOAK EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO	
<p>Auzitegiko medikuaren zereginak dira: epaitegiei, auzitegiei, fiskaltzei eta erregistro zibileko bulegoei bere jakintzagai profesionalen gainean laguntza teknikoa ematea, bai patologia forentsean, baita jardura tanatologikoetan ere, eta atxilotutakoei, kaltetuei edo gaixoei laguntza eta zaintza medikoa ematea, haien jurisdikziopean daudenean. Horretarako, mediku-txostenak eta -irizpenak idatziko dituzte prozesu judizialaren barruan, zaurituen aldiroko kontrola egingo dute, eta jardun prozesalaren xede diren gorputzeko kalteak baloratuko dituzte</p>	
EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO LAGUNGARRI DIREN ALDERDIAK	EUSKARAREN NORMALIZAZIOA OZTOPATZEN DUTEN ALDERDIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Aurrekoak baino prestakuntza handiagoa du talde honek eta horregatik, uste da gutxiago kostako zaiola esleitutako hizkuntza-eskakizuna lortzea. ▪ Auzitegiko medikuen taldea ez da beste taldeak bezain handia eta, horregatik, errazagoa da jarraipena egitea, hizkuntz-eskakizunak esleitzea eta kontrolatzea. ▪ Auzitegiko medikuek eta lan-kontratuko langileek euskara erabiltzeko esperientzietan parte hartzeko aukera dute. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ezarritako hizkuntza-eskakizunak oso gutxitan betetzen dira. ▪ Ez da jarraipenik egiten hizkuntza-eskakizunak betetzen diren jakiteko.

3.2.2.2 Karrera judizial eta karrera fiskaleko kideak eta idazkari judizialen kidegoa

Hizkuntza-eskakizunei dagokienean, kontuan izan behar da eskualdatu gabeko taldeak direnez, ez dutela nahitaez bete beharreko hizkuntza-eskakizunik. Epaille eta magistratuen kasuan, merezimendu profesionaltzat jotzen da euskararen bigarren hizkuntza-eskakizuna. Idazkari judizialen kasuan, berriz, aipatu behar da 2006ko urtarrilaren 20an argitaratu zela abenduaren 30eko 1608/2005 Dekretua, Idazkari Judizialen Erregelamendu organikoa arautzen duena. Erregelamendu horren arabera, lehiaketa bidezko lanpostuak esleitzean, Autonomia Erkidegoari dagokion hizkuntza ofizialaren ahozko eta idatzizko ezagutza egiaztatzea merezimendu profesionaltzat joko da. Fiskalen kasuan, balorazio hori Fiskaltzaren estatutuaren erreformaren zain dago. Prozesu judizialean talde erabakigarria den arren, EAEko Justizia Administrazioak ez du inolako eskumenik talde honen gainean.

KARRERA JUDIZIALEKO KIDEAK:

Puntuaziorik gorena bigarren hizkuntza-eskakizunetik aurrera lortzen da. Uste da maila hau ez dela nahikoa zerbitzua euskaraz eskaintzeko. Gainera, balorazio mailarik altuena denez, maila hori lortu ondoren askotan galdu egiten da euskalduntze-prozesuan aurrera egiteko motibazio guztia.

Epailea da epaiketa batean egindako froga guztiak aztertu ondoren ebazpena emateko eta ebazpena betearazteko ardura duena. Beraz, bere zereginen artean, garrantzi handia du, bai idatziz, bai ahoz egiten den komunikazioak. Altuena bezala baloratzen den euskara maila zeregin hauek betetzeko ez dela nahikoa uste da.

Gogoratu behar da euskara merezimendu bezala hartzeak lagundu egiten duela epaile euskaldunak hiriburuetan eta kide anitzeko organoetan egon daitezen parentesia kenduta, baina proportzioa txikiagoa dela barruti judizial euskaldunagoetan.

LANGILE-TALDE HONI ESLEITUTAKO FUNTZIOAK EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO	
Judizioan gauzatutako froga guztiak aztertu ondoren, ebazpena ematen du eta ebazpena betearazteaz arduratzen da.	
EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO LAGUNGARRI DIREN ALDERDIAK	EUSKARAREN NORMALIZAZIOA OZTOPATZEN DUTEN ALDERDIAK
<ul style="list-style-type: none"> Badago hitzarmen bat Eusko Jaurlaritzaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren artean, epaileak eta magistratuak euskara-ikastaroetara joan daitezen, eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatze probak egin ahal izan ditzaten. Oro har, epaileek jarrera positiboa dute euskara-ikastaroetara joateko baimenak emateari dagokionez. 	<ul style="list-style-type: none"> Fiskalek garrantzi erabakigarria dute prozesu judizialean. Hala ere, hizkuntza-gaitasuna euren borondatearen esku dago soilik. Mugikortasuna handia da. Nahiz eta hitzarmenak jasotzen duen ikastaro trinkoetarako liberatzeko aukera, Ministerioak ez du liberaziorik ematen ikastaro horiek egiteko.

KARRERA FISKALEKO KIDEAK

Karrera Fiskaleko kidegoan, fiskaltzaren estatutuaren erreformaren zain gaude euskararen balorazioa merezimendu gisa hartzeko. Euren lanean, ahozko eta idatzizko komunikazioak garrantzi handia du, eta lana behar bezala egiteko euskararen hizkuntza-eskakizunak, gutxienez, epaileek eta magistratuek dutenaren antzekoa izan beharko luke.

LANGILE-TALDE HONI ESLEITUTAKO FUNTZIOAK EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO	
Fiskaltzak Justiziaren lana sustatu behar du, legezotasuna, herritarren eskubideak eta legeek babestutako interes publikoa defenda daitezten; ofizioz edo interesdunek eskatuta gauza dezake fiskalak eginkizun hori. Era berean, auzitegien independentzia berma dadila eta auzitegietan gizartearen nahia bete dadila zaindu behar du (BJLOko 435. art.).	
EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO LAGUNGARRI DIREN ALDERDIAK	EUSKARAREN NORMALIZAZIOA OZTOPATZEN DUTEN ALDERDIAK
<ul style="list-style-type: none"> Badago lankidetzeta-hitzarmen bat talde honek hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroetan parte hartzea bideratzen duena eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatze azterketetan parte hartzea bideratzen duena. 	<ul style="list-style-type: none"> Fiskalek garrantzi erabakigarria dute prozesu judizialean. Hala ere, hizkuntza-gaitasuna euren borondatearen esku dago soilik. Mugikortasun handia da. Nahiz eta hitzarmenak jasotzen duen ikastaro trinkoetarako liberatzeko aukera, Ministerioak ez du liberaziorik ematen ikastaro horiek egiteko. Urte urte ikastaroaren kostuari aurre egiteko oztopo gehiago Ministerioaren aldetik.

IDAZKARI JUDIZIALEN KIDEGOA:

Legeak ezartzen du talde honen egitekoa dela epaiketaren akta jasotzea, gertatutakoaren fede emanez eta izapidetze-ebazpenak emanez. Beraz, ahozko eta idatzizko komunikazioak garrantzi handia du, eta lana behar bezala egiteko euskararen hizkuntza- eskakizuna ahalik eta handiena izan beharko luke. Hain zuzen ere, otsailaren 19ko JUS/652/2008 aginduak, idazkari judizialen lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketarako deia egiten duenak, hizkuntza-eskakizunak kontuan izanda.

LANGILE-TALDE HONI ESLEITUTAKO FUNTZIOAK EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO	
<p>Idazkari judizialek bulego judizialeko langileak gidatuko dituzte alderdi tekniko prozesalean zer egin behar duten aginduz, eta funtzio hau betetzeko beharrezkotzat jotzen dituzten agindu eta instrukzioak emanez. Ekitaldi judizialen fede publikoa emango dute, eta epaileari haren eginkizunetan lagunduko diote. Judizioan ekitaldiaren akta egingo dute, eta gertatutako guztiaren fede emango dute. Autoak eta espedienteak egiteko eta horiek dokumentatzeko ardura izango dute, baita kudeaketaren artxibo judizialaren ardura ere.</p>	
EUSKARAREN NORMALIZAZIORAKO LAGUNGARRI DIREN ALDERDIAK	EUSKARAREN NORMALIZAZIOA OZTOPATZEN DUTEN ALDERDIAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Mugikortasunak beste langile- taldeetan baino eragin txikiagoa du ▪ Badago lankidetzatza-hitzarmen bat talde honek hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroetan parte hartzea bideratzen duena eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatze azterketetan parte hartzea bideratzen duena. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Garrantzi erabakigarria du prozesu judizialean. Hala ere, hizkuntza- gaitasuna euren borondatearen esku dago soilik. ▪ Nahiz eta hitzarmenak jasotzen duen ikastaro trinkoetarako liberatzeko aukera, Ministerioak ez ditu liberatzen ikastaro horiek egiteko. ▪ Urtez urte ikastaroen kostuari aurre egiteko oztopo gehiago Ministerioaren aldetik


Laburtzeko, ondorengo taula honetan giza baliabideen ikuspuntutik Justizia Administrazioan euskararen normalizaziorako lagungarri edo oztopo diren alderdiak biltzen dira:

EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN ERAGITEN DUTEN AURKAKO FALTOREAK							EUSKARAREN NORMALIZAZIOARAKO ERAGITEN DUTEN ALDEKO FAKTOREAK							
	Eskumen maila txikia	Mugikortasuna	Hizkuntza eskakizun txikia. Galtzeko arriskua	Irudian eragina	Lanpostu zerrendarik eza	Borondatezkotasuna Hizkuntza merezimendu gisa	Eskumen maila	Hizkuntza-eskakizuna ezarri ahal izatea	Erraz eskura daitekeen hizkuntza-eskakizuna	Lege Organikoaren erreforma	Kualifikazio maila	Langile talde txikia izatea	Ikastaroetan parte hartu ahal izatea	Langileen euskalduntzearen aldeko jarrera
Laguntza judizialeko kidegoa (agenteak)	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Izapide prozesal eta administratiboko kidegoa (laguntzaileak)	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Kudeaketa prozesal eta administratiboko kidegoa (ofizialak)	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Auzitegiko medikuen kidegoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Karrera judizialeko kideak	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Karrera fiskaleko kideak	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Idazkari judizialen kidegoa	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>

3.2.3 Baliabide ekonomikoak

Azken ekitaldian, aurrekontua 2.500.000 euro ingurutik 3.000.000 euro ingurura bitartekoa izan da, beti ere urteroko aurrekontuetan atal bakoitzerako dagoen diru-kopurua zehaztuta.

Euskararen sustapenari esleitutako aurrekontuaren bilakaera grafikoa



Aurrekontuko partiden osieran, nabarmena da Justizia Administrazioaren kideentzako euskalduntze-ikastaroak emateko eta ikasmateriala garatzeko HABErekin egindako hitzarmenek duten garrantzia, baita agiriaren normalizaziok bai maila linguistikoan bai informatikoan duen nagusitasuna ere.

Neurri apalagoan, eta askoz ere aurrekontu txikiagoekin, BJKNrekin egindako hitzarmenek ere atal garrantzitsua osatzen du.

Aurrekontuko gainerako diru-atalek (argitalpenak, trebakuntza berezituak, eta abarrek) eta noizean behingo beste jarduerak batzuek (esaterako, aztertzen ari garen Hizkuntza Normalizatzeko Plan hau egitea, eta barruti bakoitzarentzat aurrez ikusten diren Erabilera- planak, Hizkuntza-normalizazioa kudeatzeko aplikazio informatiko integrala) osatzen dute Sailak hizkuntza-normalizaziorako urte osorako ezarritako aurrekontua.

3.2.4 Ekipamenduak eta baliabide materialak eta giza baliabideak

Barne-azterketa amaitzeko, Justizia Administrazioan euskararen normalizazioan eragin dezaketen tresneria eta baliabide material erabilgarriak baloratu dira. Horretarako, azterketa ikuspuntu bikoitzetik abiatu da:

- Tresneria eta baliabide materialak euskara-zerbitzuaren barruan
- Tresneria eta baliabide materialak Justizia Administrazioan

Baliabide materialei buruzko balorazioaz gain, giza baliabideei buruzkoa ere egin da, eta, azken ondorio bezala, ikusi da Euskara erabiltzeko Programetara bideratutako langileak ez direla nahikoak. Horregatik, kanpoko laguntza teknikoa kontratatu da, eta Jarduketa- planean beharko liratekeen giza baliabideen aurreikuspen bat egin da.

Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren euskara-sailean, tresneria eta baliabide material eta giza baliabideekin lotutako eta hizkuntza-normalizazioan alde edo aurka eragin dezaketen alderdi hauek identifikatu dira:

EUSKARA ZERBITZUA

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO FAKTOREAK	NORMALIZAZIOAREN AURKAKO FAKTOREAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ "Justizia.bat" proiektua aurrerapauso handi bat izango da Justizia Administrazio osoarentzat, eta, bereziki, euskara- zerbitzuarentzat. Aplikazio berri honen garapenak agiriak bi hizkuntzatan sortzea eta luzatzea erraztuko du, gaur egun egiten den itzulpen-lanari izugarri lagunduz. ▪ Oso lan garrantzitsua egin da Justizia.Net- en. Positiboki baloratu da Hizkuntza Normalizazioari eskainitako atala, profesionalen lana errazten baitu euskararekin lotutako gaietan. ▪ Organo judizialak sarean konektatuta daude, eta sare judizial bat osatzen dute. Oinarrizko plataforma hau egotea oso garrantzitsua dela uste da, etorkizunean euskara-zerbitzutik abia daitezkeen ekintzetarako. ▪ Gaur egungo aplikazio informatikoekin jarraipen pertsonalizatu bat egin daiteke, eta esleitutako hizkuntza-eskakizunak betetzen diren ala ez, banakako planak, organoen egoera, etab. kontsulta daitezke. Informazio guztia batera kudeatuko duen aplikazio berezi bat sortu da. ▪ Ikasmaterial berezia sortu da, eta HABErekin sinatutako hitzarmen baten bidez material hori landu da. ▪ Euskara Erabiltzeko Programen inplementaziorako laguntza teknikoa kontratatu da. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ EAEko organo judizial guztietan Euskara erabiltzeko Programak inplementatzeko giza baliabide nahikorik ez.

Justizia Administrazioan honako alderdi hauek identifikatu dira:

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

NORMALIZAZIOAREN ALDEKO FAKTOREAK	NORMALIZAZIOAREN AURKAKO FAKTOREAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ “Justizia.bat” proiektua aurrepauso garrantzitsu bat izango da, gaur egungo aplikazio zurrunetatik software berri eta malguagoetara igarotzea ekarriko baitu. Modu mailakatuan ezarriko da. ▪ Badago diseinatutako aplikazio bat bake-epaitegietan ezarri dena, eta egileak auskara jakin ez arren, agiri asko bi hizkuntzatan sortzeko aukera ematen duena. ▪ Badago ahozko hizkuntza lantzeko material didaktikoa, eta esparru hori jorratzen duten ikastaroak antolatu eta ematen dira. 	

3.3 EGOERAREN DIAGNOSTIKOA. AMIA MATRIZEA: AHULEZIAK, MEHATXU AK, INDARGUNEAK ETA AUKERAK

Justizia Administrazioan euskararen erabilera ebaluatzeko eta aztertzeko diseinatutako AMIA matrizea (AMIA matrizean ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak aipatzen direnean, ulertu behar da kontzeptu horiek erabiltzen direla hertsiki hizkuntza-normalizazioa gehiago ala gutxiago errazten duten baloratzeko, eta kalifikazio hori ezin dela zabaldu beste alderdi batzuetara (aukera, egokitasuna, legezotasuna...) Justizia Administrazioako agenteei egindako elkarrizketetan oinarritzen da, eta erabilgarri dauden dokumentazio- euskarrietatik jasotako informazioan. Informazio hau Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin kontrastatu da.

3.3.1. Barne-diagnostikoa

3.3.1.1 Ahuleziak

Atal honetan azaltzen den AMIA matrizea diseinatzerakoan, garrantzitsua da kontuan hartzea Justizia Administrazioan euskarak bizi duen egoera definitzen saiatzen ari garela. Esan beharra dago ahulezia guztien gainetik, badagoela bat bereziki azpimarratu beharrekoa. Hain zuzen ere, hainbat lanpostuk ez duela esleitutako hizkuntza-eskakizunik. Esleitu aurretik lanpostu-zerrenda bat egin behar da. Lehen aipatu bezala, 2003ko abenduan arazo hauek arautzen dituen Lege Organikoaren erreforma argitaratu zen; horri esker, gaur egungo sistema ordeztuko duen lanpostu-zerrenda onartuko da. Zerrenda hori egitea Giza Baliabideetako zuzendaritzari dagokio. Edonola ere, beharrezkoa da bermatzea lanpostu bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna izango duela, horrela, langile-mugikortasuna egon arren, lanpostu batera iristen den langileak lanpostuari ezarritako hizkuntza- eskakizuna ezagutu eta bete ahal izango duela bermatu ahal izateko.

Era berean, badira Justizia Administrazioak bereak dituen garrantzi handiko beste arazo batzuk ere, nagusiki, Administrazioak herritarren artean duen irudia, eta bere lanaren xedea. Zentzu honetan, komeni da beti gogoan edukitzea badagoela ondo errotutako inertzia bat justizia-arloan erabili beharreko hizkuntza gaztelania dela pentsatzeko, eta plan hau egiterakoan egiaztatu ahal izan da hori gertatzen dela, baita Justizia Administrazioako funtzionario euskaldunen artean ere. Arazo honetan kontzientziazioaren ikuspegitik egin behar da ahalegina.

Beste alde batetik, herritarrak Justizia Administrazioarekin dituen harremanei buruz aritzerakoan garrantzitsua da ere, hizkuntzaren auzia bere testuinguruan kokatzea. Izan ere, ia beti egintza judizialean tentsio maila handia izaten da, eta batzuetan hizkuntzaren auzia garrantzi gutxikoa dela pentsa daiteke, baldin eta ez badago zuzenean lotuta herritarra murgilduta dagoen prozesu judizialaren kontuekin.

Horregatik guztiagatik, eta azalduko diren beste arrazoiengatik, ez dirudi inolaz ere egokia denik euskaraz eskaini beharreko zerbitzuaren ebaluazioa zentratzea horretarako dagoen eskaeran, izan ere, eskaera hori erabat baldintzatuta baitago.

Beraz, oro har epaile, fiskal eta idazkariak euskararen ezagutza mugatua izateak, gaur egun gertatzen den bezala, eragin erabakigarria du prozesu judizialean euskara erabiltzeko.

Beste alde batetik, kontuan eduki behar da prozesu judizialean agente askok hartzen duela parte, eta horrek oso zaila egiten du denek euskara modu erosoan erabiltzeko adinako mailan ezagutzea. Arazo hau konpontzeko eta euskara erabiltzeko eskubidea bermatzeko aurrez ikusita dagoen aukera itzulpena da. Hala ere, kontsultatutako agente gehienek ustez, aukera hau ez da egokiena, uste baitute komunikazioa zailagoa bihurtu, eta prozesua oztopatu eta moteldu egiten duela, eta konparaziozko bidegabekeria bat egiten dute gaztelaniaren erabilera eskusiboarekiko.

Azken finean, esan daiteke badaudela arazo batzuk oinarrizkoak direnak, esaterako, prozesu judizialeko protagonista eta, aldi berean, bulego judizialen erantzule direnen euskararen ezagutza, eta arazo horien aurrean gaur egungo markoan zerbait egiteko aukerak oso urriak direla, baldin eta ez bada, batzuetan gertatzen den bezala, aipatutako protagonista horien (epaile, magistratu, idazkari judizial eta fiskalen) banakako eta borondatezko planteamendu batetik. Zentzu honetan, gogoratu behar da euskararen ezagutza epaileen eta idazkari judizialen artean bakarrik hartzen dela merezimendutzat.

Aipatutako borondatea indartzeko, garrantzi handikoa da kolektibo horiek hizkuntzan murgiltzeko prozesuak bultzatzea, aldi baterako lanetik liberatuz.

Beste alde batetik, Justizia Administrazioaren zerbitzupeko eta Eusko Jaurlaritzari transferitutako bulego judizialeko langileen kolektiboari dagokionez, badira azpimarratu beharreko beste arazo batzuk ere, esaterako, lanpostuak esleitzeko estatu mailako oposizioak egiten direla, eta ondorioz, EAEtik kanpoko pertsonak etortzen direla bulego judizialekora. Beraz, nahiko maiz gertatzen da euskararekin inolako harremanik izan ez dutenak egitura horretan sartzea, eta ondorioz, halakoak

euskalduntzea lortzen zaila den helburu bat da. Kontuan izanik, gainera, honako hau oso mugikortasun handia duen funtzionario-talde bat dela (elkargoaren barruan ere bai), are zailagoa da bulego judizial bakoitzaren zonaldeko hizkuntza-egoerara gutxi gorabehera egokitutako egitura bat ezartzea.

Badira euskararen erabileraren politizazioari erreferentzia egiten dioten iritziak ere.

Atal honetan aipa daitekeen beste argudio bat egiturari berari dagokiona da, Justizia Administrazioa tokian tokiko barruti judizialen bidez ezartzen baita lurraldean zehar. Neurriak leku batean baino gehiagotan ezarri beharrak prozesua zailago bihurtzen du, baliabide eta ahalegin gehiago eskatzen baitu neurriak homogeenak izateko.

Bestalde, neurriak leku askotan ezarri beharrak, gainera, beste arazo bat dakar: tokian tokiko sentsibilitateak eta jarrerak desberdinak izatea.

Garrantzitsua da justizia-arloan garatzen ari den euskalduntze-prozesua aipatzea. Zentzu honetan, badago egiten diren ikastaroen errentagarritasunari buruzko kezka. Bai Justizia Sailak eta bai langileek ahalegin handia egiten dute euskalduntze maila igotzen lortzeko; eta, kasu batzuetan, bulego judizialeko arduradunek ere baliabideak egokitzeko ahalegin handia egiten dute, euskarako ikastaroetara joateko baimenek eragiten duten langileen falta orekatzeko. Euskalduntze-prozesuan parte hartzen dutenek neurri handi batean benetako interesa dute prozesu honetan, eta behin euskalduntze-prozesuko lehen fasea gaindituta, badago nolabaiteko beldurra ikasitakoaren erabileraren inguruan. Gainera, jakina da ikastaroetan lortutako euskara maila ez bada berehala praktikan jartzen, azkar ahazten dela. Zentzu honetan, ikusi da funtzionarioek beti ez diotela ikastaroetan ikasitakoari etekinik ateratzen, eta horrek ikastaroen eraginkortasuna nabarmenki urritzen du. Hori ekiditeko, sailak behar bezainbeste baliabide izan behar ditu, lortutako ezagutzak finkatzeko aukera emateko. Bestalde, eta zentzu berean, baliabideak falta dira Justizia Saitetik bertatik ikastaro hauetan parte hartzen dutenetako bakoitzaren mailaren jarraipena egiteko. Ikasle bakoitzak zer ikasi duen, eta ikasitakoa nola erabiltzen duen jakiteak, gaur artekoa ez bezalako kudeaketa ahalbidetuko luke.

Ahulezien atal honekin bukatzeko, euskararen erabileran garrantzi handia izan dezakeen arazo bat aztertuko dugu. Hain zuzen ere, terminologia juridikoari dagokiona. Zentzu honetan, badirudi terminologia-hutsune bat dagoela, baina benetan gertatzen dena da, terminologia landu arren ez dela iristen iritsi behar duenarengana. Horregatik, uste da beharrezkoa dela arlo honetan hedatze-lana egitea, terminologia ezartzeko aurrerapauso garrantzitsuak eman baitira.

3.3.1.2 Indarguneak

Aipatu berri ditugun ahuleziekin batera, badira EAEko Justizia Administrazioarekin lotutako berezko faktore positibo batzuk ere, hemen azpimarratu behar direnak.

Oro har, euskararen munduan azken urteotan egindako aurrerapenekin zerikusia duten alderdiak dira. Kasu honetan, eskuragarri dauden baliabideak dira, eta Justiziaren hizkuntza-normalizazioaren prozesuan erabil daitezkeenak.

Hasteko, EAEko Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalizazioaren prozesua arautzen duen Dekretua azpimarratu behar da, hainbat alderdi jasotzen dituena, eta aipatutako administrazioan ekintzak zein baldintzetan kudeatu behar diren ezartzen dituena.

Atal honetan sartzten da euskararen sustapenean diharduten normalizatzailleak egotea ere, hainbat justizia-jauregitan martxan jarri diren euskara erabiltzeko esperientzietan lanean dabiltzanak. Gainera, kanpoko langileak ere kontratatu dira, justiziako langileen ahozko eta idatzizko gaitasuna hobetzeko asmoz.

Halaber, indargunetzat hartu behar da Justizia.bat proiektuaren egoera ona. Proiektu honek erabiltzaile potentzialen esku jartzen ditu bi hizkuntzatan egongo diren agiri estandarizatuak editatzeko tresna informatikoak.

Era berean, azpimarragarria da hainbat agiri dagoeneko euskaraz eskuragarri egotea, eta halaber, bake-epaitegietan agiriak bi hizkuntzatan prestatzeko aukera ematen duen aplikazio bat egotea, agiria prestatzeko ardua duenak euskaraz jakin ala ez. Agiri batzuk euskaraz egotea, nahiz eta aurrerapauso garrantzitsua izan, ez dela nahikoa uste da, bidaltzen diren agiri guztien artetik gutxi batzuk besterik ez baitira.

Badira beste hainbat indargune, bidali behar diren agirien berezko izaerarekin loturik daudenak. Estandarizazio maila handia duten agiriak dira, eta horrek ahalbidetu egiten du eredu elebidunak ezartzea, egin beharreko lana sistematiza baitaiteke.

Erabilgarri dauden eta hizkuntzaren normalizaziorako oso lagungarriak izan daitezkeen baliabideekin jarraituz, aipamen berezia merezi du Erakunde arteko Batzordeak; bertan, partaideetako bakoitza dagoen prozesuen informazioa partekatzen da. Elementu positibo bat izateaz gain, ez da mugatzen euskararen mundura, eta eremu honetan positiboki baloratzen da potentziala duen elementu bat bezala.

Indargune garrantzitsutzat jotzen dugu, halaber, EAEn Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalizazioaren prozesua arautzen duen dekretu berri bat onartuko dela. Aipatutako dekretu honek hiru jarduera-eremu nagusi ditu: hizkuntza-eskakizunak esleitzea eta egiaztatzea, funtzionarioentzat hizkuntza-gaitasuna lortzeko ikastaroak antolatzea eta organo eta zerbitzu judizialetan eta fiskaltzetan euskara erabiltzeko programak sustatzea. Dekretu horretatik abiatuta, eta behin lanpostu-zerrendak ezarrita, lehenengo aldiz unitate elebidunak sortu ahal izango liriteke zerbitzu orokor prozesalen barruan, prozedura elebidunak izapidetzeko eta hala eskatzen duten herritarrei euskarazko zerbitzua eskaintzeko. Orain arte, eskaera honi aurre egiteko itzultzaileak erabili dira, dena den, aurrerantzean, arian-arian hau aldatuz joango da.

Hasiera batean bi hizkuntza ofizialetan izapidetzeko baldintzak dituzten organoetan esperientzia pilotoak egingo dira, gaur egun Bilboko Lan-arloko epaitegian egiten ari garen ildotik.

Beste indargune bat izango litzateke Justizia Administrazioaren zerbitzupeko langileek euskalduntzearen alde duten jarrera.

Bukatzeko, kontuan hartu behar da euskara erabiltzeko programak gainerako organo judizialetara hedatzeko asmoa dagoela pixkanaka-pixkanaka.

3.3.2 Kanpo-diagnostikoa

3.3.2.1 Mehatxuak

Gorago esan den bezala, badira Justizia Administrazioan garrantzi handiko alderdi batzuk zuzenean Justizia Ministerioaren mende daudenak. Horregatik, garrantzi berezia hartzen du instantzia zentralek euskararen koofizialtasunaren inguruan egiten duten interpretazioa. Horrela, itzulpenarekin herritarrek hautatzen duten hizkuntza erabiltzeko eskubidea errespetatzen dela diote. Zaila izango da Justizia Administrazioan euskara normalizatzeko oinarrizkoak irizten diren planteamendu asko garatzea, harik eta koofizialtasunak justiziagarriak hautatzen duen hizkuntza baldintza berdinetan erabili eta hizkuntza horretan artatua izateko eskubidea esan nahi duela interpretatzen ez den artean. Planteamendu horren ondorioz, hainbat gai berrikusteko beharra aipatzen da: lanpostu judizialak hornitzeko sistema, epaitegietako lan-prozesua eta espedienteen esleipena, eta itzultzaileek eduki beharreko garrantzia eta papera; horiek guztiak, izan ere, euskara erabiltzea bultzatzeko moduan arautu beharko lirateke.

Aurreko puntuarekin zuzenean lotuta, azpimarratu behar da eskumenak hiru instantzien artean banatuta daudela: Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saila, Justizia Ministerioa eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, eta askotan hizkuntza-normalizaziorako politiken inguruan iritzi desberdinak dituztela. Eskumenen banaketa honek eta hizkuntza-normalizazioa desberdin ulertzeak, betiere oztopatu egiten dute euskararen erabilera.

Kontuan hartu beharreko beste mehatxu bat bereziki epaile, magistratu eta fiskalek bizi duten mehatxu-egoera da. Horrek hainbat ondorio dakartza epaileen eguneroko bizitzan, eta gainera, are gehiago eragiten du euskara erabiltzearen garrantzia bigarren mailara pasatzea, prozesu honetan garrantzi erabakigarria duten agenteen lehentasun-aukeretan.

Badaude, aipatu diren agentez gain, prozesu judizialetan eragiten duten beste estamentu batzuk ere, euskararen erabilera baldintza dezaketenak. Talde honetan daude, eragin desberdinarekin, abokatuak, polizia judiziala, adituak, prokuradoreak, notarioak... eta justizia-munduan partaide diren gainerako talde guztiak. Talde hauek, hasieratik euskararekiko duten jarrera izateaz gain, funtzionamenduaren aldetik ez daude Justizia Sailaren irizpideen mende, eta beraz, hauengan izan dezakeen eragina txikia da, zuzenean bederen.

Badira mehatxuen artean aipatzea komeni den beste bi alderdi ere: hizkuntzari eta euskarazko zerbitzuaren eskaerari dagozkienak. Lehen kasuan, honako mehatxu hau antzematen da: zuzenbidearen munduarekin lotutako zereginak egiteko edozein hizkuntzatan zehaztasun eta menderatze maila handia behar dela. Hain zuzen ere, hizkuntza bera oinarrizko tresnetako bat da, eta erraztasunez menderatzen ez bada arazoak sor daitezke. Euskararen baldintza soziolinguistikoak direla-eta, oso arrunta da euskaraz ondo hitz egiten dutenek, euren burua euskaraz lan egiteko gai ez ikustea. Honek aukera asko kentzen dizkio euskararen erabilerari Justizia Administrazioan.

Aipatu dugun beste gaia euskarazko zerbitzuen eskaerarena zen. Inolako zalantzarik gabe kaltegarria den kontu bat da, izan ere, gaur egun ez baitago euskarazko zerbitzu juridikoen eskaera handirik. Horrela, badirudi euskarazko zerbitzuen eskaerarik ez badago, ez dagoela horrelako zerbitzuei baliabiderik eskaini beharrik. Gai honi buruz hainbat gauza esan behar da. Lehenengoa, herritarrek nahi duten hizkuntza erabiltzeko eskubideak dituztela, eta hauen arabera, administrazioak bi hizkuntza ofizialetan gaitasuna izan behar duela. Bestalde, esan bezala, Justizia Administrazioan hizkuntza baten edo bestearen arteko aukeran eragin dezaketen ia elementu guztiek gaztelaniaren alde egiten dute, eta areago, oro har herritarrak justizierekiko erlazioan edukitzen duen ezinegonarekin. Gainera, EAEn bertan badira herritarrari eskainitako beste zerbitzu batzuen adibideak, hasiera batean, euskarazko zerbitzuaren eskaera handirik ez zutenak, baina euskarazko eskaintzaren ondorioz ezkutuan zegoen eskaria azaleratzen joan direnak. Paradigmatikoa izan daiteke zentzu honetan, nola sartu den euskara osasun-zerbitzuetan. Hau da, onartu egin behar da euskaraz eskainitako zerbitzuen diseinua une jakin batean antzeman daitekeen eskaria baino lehenago egin behar dela.

3.3.2.2 Aukerak

Barne-azterketan gertatzen zen bezala, kanpo-azterketan ere badira gai batzuk, euskara sustatzeko planaren diseinurako lagungarri izan daitezkeenak. Horien artean beharrezkoa dirudi behin baino gehiagotan aipatu den zerbait nabarmentzea, alegia, euskararen ofizialtasuna, horrek Administrazio osoa, Justizia Administrazioa barne, jokabide jakin bat izatera behartzen baitu. Hori da aukeren arten onena.

Aukeren artean aipatu behar da, halaber, Espainiako Gobernuak Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu izana. Sinatze horrek euskara bezalako eremu urriko hizkuntzen garapenaren alde aritzera behartzen du Espainiako Gobernuak. Gaur egun, Gutunari buruzko Adituen Batzordeak txosten bat egin du, eta, horrekin batera, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioa prestatu du, Espainian Gutuna aplikatzeari buruz. Justiziaren eremuari dagokionez, nabarmendu behar dira Espainiako erakundeei egindako gomendioak, Justiziarri dagokion artikuluan jasotzen diren konpromisoak bermatzeko beharrezkoak diren neurri juridiko eta praktikoak har ditzaten, batik bat, Autonomia Erkidegoetan esparru honetan lan egiten duten langileen ehuneko egoki batek izan dezan hizkuntza jakin horien ezagutza praktikoa.

Bestalde, aurrez ikusten da justiziaren arlora ere iritsiko direla EAEko biztanle gehienek euskaraz ikasten eta hizkuntza-eskubideen inguruan kontzientziatzen joatearen ondorioak, eta horrek seguruenik zentzu honetan hainbat neurri hartzea eragingo duela. Era berean, espero daiteke kontzientziatze handiago honen ondorioz hainbat arlotako profesional euskaldunen eskaintza zabaltzea.

Aldeko faktore bat da duela urte batzuetatik hona zuzenbide-ikasketak euskaraz egin ahal izatea, baina oraindik asko hobetu daiteke gaitasun espezifikoaren ikuspuntutik. Zalantzarik gabe, azken urteotan abokatusan, epailetzan, fiskaltzan eta idazkaritza judizialean lizentziatu euskaldunak sartzeak egoera positiboagoa eta hobea ekarri du.

Horrez gain, aipatu behar da 2005ean Justizia Sailak eta Ministerioak sinatutako hitzarmenaren ondorioz, fiskalek zein idazkari judizialek HAEK antolatutako hizkuntza- eskakizunen azterketetara aurkezteko aukera dutela.

Ondoren eskaintzen den AMIA matrizeko aukerekin bukatzeko, aipatzekoa da administrazioko beste sail eta erakunde batzuek euskara modu mailakatuan eta emaitza onekin ezarri dutela.

A	AHULEZIAK	M	MEHATXUAK
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskararen ezarpena urria izatea garrantzi hierarkiko eta operatibo handia duten zenbait buruzagiren artean (epaile, fiskal eta idazkari judizialen artean). ▪ Euskararen erabilera politikarekin identifikatzea aldi batzuetan. ▪ Merezimendurik altuena lortzeko epaileek behar adinako hizkuntza-eskakizunik ez izatea. ▪ Langile mailako eskumenak mugatuta egotea, estatu mailako kidegoa izateagatik. ▪ Lanpostu-zerrenda onartzeke egotea. ▪ Funtzionarioek lan-mugikortasun handia izatea, bai Erkidegoaren barruan eta bai Erkidegotik kanpo. ▪ Agenteen borondatearen araberakoa izatea euskararen erabilera. Justizia Administrazioak irudi euskaldunik ez izatea. ▪ Erdaraz lan egiteko urte askotako inertzia/ohitura izatea. ▪ Merezimendua aplikatzearen ondorioz, hizkuntza-errealitatea hain euskalduna ez den zona eta organoetako lanpostuak sustatuz. ▪ Euskarak garrantzi gutxi izatea organo judizialen lehentasunen artean. ▪ Itzulpenak hurrentasunaren printzipioan eragitea. ▪ Euskalduntzeko ikastaroez hizkuntza-erabilgarritasun/erabilgarritasun operatibo urria izatea 		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Terminologia juridikoa gutxi hedatua egotea. ▪ Justizia Administrazioaren egitura atomizatuta egotea. Lurraldearen banaketa fisikoa. ▪ Prozesu judizialean agente ugari parte hartzea. ▪ Prozesu judizialen balizko moteltzea itzulpena dela-eta; horren ondorioz, euskarazko zerbitzua eskatzen duena zigortzen da. ▪ Erkidegoz haraindiko instantziek koofizialtasunari buruz egindako interpretazioa. ▪ Estatu mailako legeen aldetik laguntza urria izatea Justizia Administrazioan euskararen normalizazioa sustatzeko. ▪ Eskumenak Justizia Sailaren, Ministerioaren eta BJKNren artean banatuta egotea. ▪ Prozesu judizialean parte hartzen duen langile kopuru handi bat ez da Justizia Administrazioaren eskumekoa: abokatuak, ertzaintza, adituak, prokuradoreak... ▪ Prozesu judizialean hizkuntzak zehaztasun handia behar izatea. ▪ Hizkuntza honetan lan egiteko maila jakin bateko hizkuntza-gaitasuna behar izatea. ▪ Euskarazko zerbitzu gutxi eskatzea. ▪ BJLOn euskara sustatzearen interpretazio murriztailea egitea.
I	INDARGUNEAK	A	AUKERAK
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ EAEko Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalizazioaren prozesua arautzen duen XXX dekretua onartzeko zorian egotea. ▪ Euskalduntze-prozesuen eta langile propioen hizkuntza-eskakizunen esleipenen jarraipena egiteko aplikazio informatiko bat egotea. ▪ Hizkuntza-eskakizunak definitu eta esleitzeko proposamenaren aurretik azterketa bat egotea. ▪ Justizia.bat proiektua aurreratua egotea. ▪ Agiri kopuru esanguratsu bat formatu elebidunean egotea. ▪ Sailean bertan euskara-sustatzaileak egotea. ▪ Erakunde arteko batzorde bat egotea. ▪ Agiriak normalizatzeko batzorde bat egotea. ▪ Sare informatiko judizial bat egotea. ▪ Idatzitako agiri asko bi hizkuntzatan bidaltzeko aukera izatea, estandarizatutako testu asko dagoelako. ▪ Lana oso sistematizatu egotea. Lana oso normalizatu egotea. ▪ Bake-epaitegietan euskarazko aplikazio informatiko berri bat egotea. 		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Justiziako langileen ahozko eta idatzizko gaitasuna hobetzeko, kanpoko langileak kontratatzea. ▪ Lege-testuak itzultzeko, unibertsitateekin hitzarmenak sinatzea. ▪ Euskara erabiltzeko Programak beste organo judizial batzuetara hedatzea. ▪ Funtzionarioek eta beste instantzia batzuek euskalduntzeko prozesuaren alde egitea. ▪ Euskara ofiziala izatea. ▪ Strasburgoko Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatu duten herrietako bat izatea Espainiako Estatua. ▪ Euskaldunen kopuruak nabarmen gora egin izana, eta horregatik, euskarazko eskariak gora egingo duela aurrez ikustea. ▪ Lekuan lekuko profesionalak lanean has daitezten ikasteko beka ematea. ▪ Zuzenbide-ikasketak euskaraz egin ahal izatea. ▪ Beste Administrazio edo Sailen euskalduntze- esperientzia. ▪ Justizia Administrazioaren hizkuntza- normalizazioaren prozesua arautzen duen XXX dekretu berriari esker, unitate elebidunak sortzea. Karrera fiskaleko kideei eta idazkari judizialegi hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko aukera

3.4 ESTRATEGIA-HELBURUAK ETA -LERROAK

Egindako eta aurreko orrietan azaldutako azterketen arabera, bost dira Justizia Administrazioan Hizkuntza Normalizatzeko Plan honen estrategia-helburuak; datozen urteetan egin beharrekoaren nondik norakoa baldintzatuko dute estrategia-helburu hauek, Justizia Administrazioan euskara normalizatzeari dagokionez. Bost helburu hauetatik aurrerago azalduko diren hainbat estrategia-lerro asoziatu eta -ekintza zehatz ondorioztatzen dira.

1. Euskarari garrantzi gehiago eskaintzea, eta horri hedapena ematea.

Garrantzitsua den arazoetako bat Justizia Administrazioko prozedura guztietan euskara erabiltzeari garrantzi gehiago ematen saiatzearena da. Gaur egun, hizkuntzaren arazoa bigarren mailan geratzen da epaitegi gehienek kasuan. Horrek asko zailtzen du euskararen sustapenerako neurri zehatzak abian jartzea. Helburu honekin Sailburuordetzatik alderdi honi eman nahi zaion bultzada agerian utzi nahi da.

Helburu honekin oinarrian lortu nahi dena da, euskararen alde lan egiten dela, eta euskara erabiltzea positibotzat hartzen dela ezagutaraztea, bai justizia-administrazioko langileei, bai gainerako herritar guztiei ere.

Helburu hau lortzeko jarraian aipatzen diren jardun-lerroak proposatzen dira:

Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa baloratzea.

Justizia-jauregietan euskara egunerokotasunez erabiltzeko helburuko ekintzak egingo dira, bai horretarako gaitasuna duten langileen artean, bai erabiltzaileei eskainitako zerbitzuetan ere.

Giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea, Justizia Administrazioan euskara hedatzeko eta erabiltzeko.

Arlo honetan hainbat neurri martxan jartzeko, helburua betetzea ahalbidetuko duten baliabideak behar dira. Bestalde, Justizia Sailak adierazitako benetako borondate baten gauzatzea da.

Herrizaingo Sailarekin akordioak garatzea

Prozesu judizialean eragiten duten beste erakundeekin akordioak lortzeko lan egitea proposatzen da, esaterako, Herrizaingo Sailarekin polizia judizialari dagokionez.

Adostasun gehiago bilatzea Justizia Sailaren, Justizia Ministerioaren eta Botere Judizialeko Kontseilu Orokorraren artean.

Honako hau jarduera-lerro oso konplexua da, eta hainbat egoera koiunturalek baldintzatzen dute. Hala eta guztiz ere, eskumenen banaketak akordioak egitera behartzen du, eta ildo honetan aurrerapausoak ematen saiatzera.

Proiektuaren ikuspuntu positibo bat ematea Justizia Administrazioako kide guztiei, eta batez ere buru direnei.

Hizkuntza-erabileraren auzian, bulego judizialeko buru hierarkikoen jarrera oinarrizkoa da. Proiektu hau zer den aurkeztu eta azaldu behar zaie buru horiei: hizkuntza-normalizaziorako plan bat euskararen erabilera sustatzeko. Azpimarratu behar da plana beharrezkoa dela, eta eskaintzen den zerbitzuari balio erantsia eman diezaiokeen elementu gisa erabili behar dela.

2. Herritarren eta profesionalen artean euskarazko zerbitzuen erabilera sustatzea, eskaintza ugarituz.

Proiektu honetan zehar, dagokion ataletan jaso den bezala, nabaritu da dagoeneko garatzen direla euskara sustatzeko ekintza zehatz batzuk. Badago, beraz, euskara erabil daitekeen hainbat esparru. Hala ere, euskara ez da erabiltzen hizkuntzaren hautaketan zuzenean eragiten duten hainbat arrazoi direla-eta.

Euskara erabiltzea posible den egoeretan erabilera hori erraztuko duten jardunak abiarazteko beharrari erantzuten dio helburu honen planteamenduak. Hasiera batean, helburu honekin planteatzen dena ez da erabiltzaileek euskarazko zerbitzua gehiago eska dezaten sustatzea. Hemen proposatzen dena da erabiltzaileek elebidunak diren giza baliabideak eta baliabide materialak elebidun bezala identifikatzea, eta erabiltzaileek erabakitzea euskara edo erdara erabili nahi duten. Azken finean, euskarazko zerbitzua ugaritzea eta hedatzea da helburua.

Helburu hau betetzeko proposatzen diren lerroak honako hauek dira:

Justizia Administrazioak zerbitzu publikoaren irudia hedatzea.

Kaleko jendeak Justizia Administrazioari buruz duen irudia soiltasuna, zurruntasuna edo zorrotzasuna bezalako arazoekin lotuta dago; horregatik, ez da ikusten zigor- arloko jardunaz gain, beste jardun batzuk egiten diren zerbitzu-gune bat bezala.

Pertzepzio hau oso errotuta dagoenez, bestelako arazo batzuk, hizkuntzarena barne, baztertuta geratzen dira. Lan-lerro honek pertzepzio honetan sakondu nahi du, hain zuzen ere. Helburu honekin zerbitzu euskaldun baten irudia hedatzeko lan zailean sakondu nahi da.

Terminologia-kontuetan lan-lerro zehatzak abian jartzea, horien hedapenean sakonduz batik bat.

Arazo terminologikoa oinarri-oinarrizkoa da. Arlo juridikoan, hizkuntza oinarrizko lan-tresna da. Beharrezkoa da tresna hau menderatzea, eta horretarako, sortzen diren arazo terminologikoak konpondu eta konponbideak ezagutarazi egin behar dira. Erabakiak hartzen eta apurka-apurka terminologia definitzen doan neurrian, batez ere erabaki horien hedapenean sakontzea proposatzen da.

Euskaraz idatzitako ereduaren normalizazioan eta horien erabileran sakontzea.

Euskaraz idatzitako ereduak erabiltzea oso garrantzitsua da. Horien normalizazioak eta euskaratzeak bere erritmoan darrai, eta horretaz arduratzen den Batzordeak oso lan garrantzitsua egiten du, Plana indarrean egongo den 10 urteetan jarraitu beharrekoa. Halaber, Batzorde paralelo bat sortzea proposatzen da, lehendik dagoenarekin koordinatuta, agiri kopuru bikoitza normalizatzeko, agiri horietako gehienak bi hizkuntzatan erabilgarri egon daitezzen Plana indarrean egongo den epealdiaren amaieran. Nahiz eta jakin egoera onenean agiriak normalizatzeko batzorde bakarra izan beharko genukeela, bi hizkuntzatan aldi berean lanean jardungo lukeena, oraindik ez daukagu hori aurrera eramateko behar den hizkuntza-egoera. Gauzak horrela, planteamendu hau 2017rako egiten da ordurako hizkuntza-egoera maila honetan asko hobetuko den itxaropenarekin. Lerro honen helburua lanean jarraitzea eta euskarazko ereduak sortzeko prozesua hobetzea da, eta batez ere, eskuragarri dauden ereduak erabiltzea.

Euskara Justizia Administrazioaren informatizazio-prozesuan sartzen laguntzea.

Arlo guztietan teknologia berriekin lotutako prozesuak sartzeari geldieztina da. Teknologia berriekin lotutako elementuak sartzeko prozesuetan euskara bazter ez uztea da helburua. Horretarako, jarduketa-lerro bera sartu da "2007-201 Oeko EAEko Justizia Administrazioaren informatika eta Telekomunikazio Planean", bi plan horien artean erabateko koordinazioa bermatzeko puntu horretan.

Epaitegien barne-egituraketan sakontzea.

Epaitegien barne-egituraketak erabilgarritasun handia du euskarari dagokionean. Hain zuzen ere, kokatze-prozesuetan komenigarria da publikoarekin zuzeneko harremana dutenak harreman horiek euskaraz ezartzeko gai izatea. Erabaki hauek, eta antzeko beste batzuk, epaileen eta idazkarien esku daude, eta horregatik, komenigarria litzateke hizkuntza-irizpideei jarraituz hartzea.

BJLOren erreformak autonomia-erkidegoei zerbitzu orokor prozesalen antolatze- esparruan egiten dien eskumen-esleipenak euskararen erabilerari lagunduko dio, lan-tresna gisa.

Herritarrek Justizia Administrazioarekin duten harremanean euskara erabiltzen laguntzea.

